# OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

Tolosako Udaletxean, 2015eko apirilaren 28an, arratsaldeko 19:30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 28 de abril de 2015, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria
Hasier De los Rios Soraluce
Igor Ezenarro Balda
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Jon Koldobika Arsuaga Artola
Mikel Arreseigor Astibia
Silvana Ostiza Goikoetxea
Ainhoa Etxeberria Aranburu

Olatz Peon Ormazabal
Jon Aldazabal Etxeberria
Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Nuria Carbonell Miranda
Miren Ezkiaga Etxezarreta
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behineko Kontuhartzailetza:

Paulino Alonso Eraso.

1.- Ondorengo akta onartzea:

2015eko martxoaren 31ko Osoko Bilkurakoa.

1.-Aprobación de la siguiente acta:

Sesión Ordinaria de 31 de marzo de 2015.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2015eko martxoaren 1etik 31ra (2015/346-2015/518)

2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 1 al 31 de marzo de 2015 (2015/346 al 2015/518)

3.-Udal eta Batzar Nagusierako 2015eko maiatzaren 24an egingo diren hauteskundeetarako mahaikideak izendatzeko zozketaren emaitza onartzea.

3.-Aprobación de la relación confeccionada por sorteo de los componentes de las Mesas Electorales para las Elecciones Locales y Autonómicas a celebrarse el día 24 de mayo de 2015.

4.-2/2015 kreditu aldaketaren espedientea onartzea.

4.-Aprobación del expediente de modificación de créditos 2/2015.

5.-2015/2016 ikasturterako ordenantza fiskalen aldaketa haseraz onartzea.

5.- Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza fiscal correspondiente al curso 2015/2016.

6.- Kreditu aldaketa eta egonkortasuna. Komunikazioa Udalbatzari.

6.-Modificación de créditos y estabilidad. Comunicación a la Corporación.

7.- Berankortasunaren gaineko arautegia betetzeari buruzko txostena, 2014ko ekitaldiari dagokiona.

7.-Informe sobre el cumplimiento de la normativa de morosidad en el ejercicio de 2014.

8.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Diagnostikoa onartzea.

8.-Aprobación del diagnóstico para la igualdad de mujeres y hombres.

9.- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2015-2020) onartzea.

9.-Aprobación del III Plan para la Igualdad de mujeres y hombres (2015-2020)

10.-Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Eraginkorra (2015-2016) onartzea.

10.-Aprobación del Plan Operativo para la Igualdad de mujeres y hombres (2015-2016).

11.-Kultur Tailerrak kontratatzeko espedientea onartzea.

11.-Aprobación del espediente para la contratación de los talleres culturales.

12.-LAB-ek aurkeztutako mozioa: Azpikontratetan eman behar diren lan baldintzen defentsan.

12.-Moción presentada por LAB: defensa de las condiciones laborales en las subcontrataciones.

13.- EH Bilduk aurkeztutako mozioa: Armeniar genozidioaren 100. urteurrena.

13.-Moción presentada por EH Bildu: centenario del genocidio armenio.

14.- Anmistia Internazionalak aurkeztutako mozioa: Adierazpen instituzionala; maiatzaren 17a, Homofobia eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna.

14.-Moción presentada por Amnistia internacional: Declaración Institucional en el Día Internacional contra la Homofobia y la Transfobia, 17 de mayo.

# OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

15.- Galde-erreguak

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

15.- Ruegos y preguntas.

A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

**1.- Ondorengo akta onartzea:**

**2015eko martxoaren 31ko Osoko Bilkurakoa.**

**1.-Aprobación de la siguiente acta:**

**Sesión Ordinaria de 31 de marzo de 2015.**

Aurreko plenoan, Lore Agirre Zipitria zinegotziak 6. puntuan egindako bere parte hartzea osatzeko eskaera egin du. Horrela zegoen jasota:

*"2012an aparteko paga hau ezin izan zen ordaindu eta diru hau gordeta geratu zen. Orain, legeak ateak ireki dituenean eta teknikarien txostenak hala diotenean, 2012an ordaindu gabeko paga hori berreskuratuko litzateke. Esan bezala, 2012an Tolosako Udaleko lan balditzetarako akordioa sinatu zuten udal gobernuak eta komiteak. Lan balditza hauekin pausoak ematen joan gara, besteak beste, barne promoziorako kronograma bat jasotzen zen bertan, hau ere martxan daukagu."*

Parte hartzea osatuta horrela geratuko da:

*"2012an aparteko paga hau ezin izan zen ordaindu eta diru hau gordeta geratu zen. Orain, legeak ateak ireki dituenean eta teknikarien txostenak hala diotenean, 2012an ordaindu gabeko paga hori berreskuratuko litzateke. Esan bezala, 2012an Tolosako Udaleko lan balditzetarako akordioa sinatu zuten udal gobernuak eta komiteak. Lan baldintza hauekin pausoak ematen joan gara, besteak beste, barne promoziorako kronograma bat jasotzen zen bertan, hau ere martxan daukagu; legeak ahalbideratu duen heinean kanpo deialdiak egin dira, hori martxan dago; aparteko pagaren zati bat ere ordainduko da. Nik uste dut 2012tik denbora izan dela hausnarketa egiteko, eta gonbidatu, nahi izanez gero, udaleko lan baldintzeko akordioa sinatzera."*

Ondoren, izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

**2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**

**2015eko martxoaren 1etik 31ra (2015/346-2015/518)**

**2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:**

**Del 1 al 31 de enero de 2015 (2015/346 al 2015/518)**

Alkatetzak 2015eko martxoaren 1etik 31ra bitartean (2015/346-2015/518) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

Denak ados egonik, gai zerrendaren ordena aldatu da eta 14. puntua tratatuko da:

**12.-<u>LAB-ek aurkeztutako mozioa: Azpikontratetan eman behar diren lan baldintzen defentsan.</u>**

**12.-<u>Moción presentada por LAB: defensa de las condiciones laborales en las subcontrataciones.</u>**

Mozioak honela dio:

"Eskulanen edo zerbitzuaren azpikontratazioa Euskal Herriko erakundeetan gobernatzen duten alderdi politikoen erabakiz, batik bat EAJ-ren, UPN-ren, PSN-n eta PSE-ren erabakiz, gauzatu zen eta gauzatzen ari da. Erabaki politiko horrek ondorio larriak dakartzalarik.

Azpikontratetan diharduten langileek, besteak beste, hiru ondorio larri jasaten dituzte:

- erakundeak ahaztu dira langile hauetaz, jadanik ez direlako EUREN langileak. Arazoak sortzen direnean, eskuak garbitzen dituzte, eta behin eta berriz, haien arazoak azpikontratara desbideratzen dituzte
- azpikontratazioak lan baldintzak kaskartzea ekarri du eta prekarietatea larriagotu da lan erreformarekin
- krisiak eraginda, erakundeetan ematen ari diren murrizketak direla-eta azpikontratetako lanpostuak suntsitu eta murriztu dira.

LABek argi dauka zerbitzu publikoko lanak langile publikoek bete behar dituztela, eta halaxe defendatuko dugu, lanpostu horiek, berez, baldintza hobeagoak dituztelako eta egun esku pribatuetan dagoen diru publikoaren kontrola handiagoa delako. Hura gure helburua izanik, berez, lan horietako asko azpikontraten bidez egiten dira, eta hortaz, hauetan jasan ohi den egoera arinduko luketen ekimenei ekin beharko litzaieke. Erakundeek badute ardura azpikontratetako langileekin eta ezin dute ezikusiarena egin jasaten ari diren lan egoera honen aurrean.

Erakundeek gaitasuna dute, azpikontrata batek

"La subcontratación de obras y servicios ha sido y es una decisión de los partidos que gobernaban en las instituciones de Euskal Herria, principalmente PNV, UPN, PSE y PSN. Una decisión politica, con graves consecuencias para los/as trabajadores/as.

Los/as trabajadores/as de las subcontratas sufren, entre otras, tres graves consecuencias:

- las instituciones se han olvidado de estos/as trabajadores/as, por que ya no son SUS trabajadores/as. Cuando hay problemas, se lavan las manos, y reiteradamente se derivan sus problemas hacia la subcontrata.
- la subcontratación ha generado un empeoramiento de las condiciones de trabajo, precariedad, que se ha agravado con la reforma laboral.
- con los recortes que se están dando en las instituciones por efecto de la crisis, se han destruido y reducido puestos de trabajo en las subcontratas.

En LAB tenemos claro que los servicios públicos deben ser realizados por trabajadores/as públicos/as, y así lo defendemos, por ser puestos de trabajo con mejores condiciones y mayor control del dinero público que actualmente se pone en manos privadas. Siendo ese nuestro objetivo, la realidad es que muchos de esos trabajos se realizan a través de subcontratas, y por tanto es necesario tomar iniciativas que palien la situación que se padece en estas. Las instituciones tienen una responsabilidad con los/as trabajadores/as de las subcontratas, y no pueden mirar hacia otro lado ante la situación laboral que se está sufriendo.

Las Instituciones tienen capacidad para, cuando

obra edo zerbitzuren bat kontratatzen duenean langileen baldintzak bermatuko dituzten nahitaez bete beharreko klausulak sartzeko.

Hortaz, egun erakundeak gobernatzen dituzten alderdi politikoek ez badute urratsik egiten azpikontratetako lan baldintzak eta lanpostuak babesteko, langileek jasan ohi duten egoeraren arduradun eta konplizeak izango dira.

LABek, azpikontratetako langileen baldintzak hobetzeko asmoz, ekimen berri bati ekin dio, eta Euskal Herriko erakunde guztietan eskatu du lan edo zerbitzuak azpikontratatzeko pleguetan neurri jakin batzuk derrigorrez har daitezen.

Horregatik, Tolosako Udalari eta bere menpeko erakundeei, edozein izaera juridiko daukatelarik, zerbitzuak edo/eta lanak azpikontraten bidez bideratzen dituztenean, kontratazio-plegu guztietan ondoren adierazten diren neurriak bermatuko dituzten klausulak sar ditzan eskatzen diogu:

1. Gutxienez, herrialdeko hitzarmen sektoriala ezarriko da. Hauetako hitzarmenen bat indarrean ez balego, berritu artean, langileei ezartzen zaizkien lan baldintza guztiei eutsiko zaie. Era berean, langileei ezartzen zitzaizkien eta ezarriko zaizkien lan baldintzak kontratazio berrietan ezarriko dira.
Lan zentroko edota zerbitzuko hitzarmenik edo itunik balego, bertan jasotakoa langileei ezarri beharreko gutxieneko baldintzatzat joko da, bai indarrean dauden bitartean, baita berritu arte ere, beti ere herrialdeko hitzarmen sektoriala sorospidez ezarriko litzatekeelarik.

2,- Ez da inoiz estatu mailako enpresa hitzarmenik ezarriko, ez eta estatu mailako hitzarmenik ere, azken adibide honen harira, probintzia mailan, sektoreko negoziaziorik inoiz izan ez den kasuetan.

3,-Ezin izango zaizkie, ezarri beharreko

subcontratan una obra o servicio, incluir clausulas de obligado cumplimiento que garanticen las condiciones de los/as trabajadores/as.

Por tanto, si los partidos que actualmente gobiernan las instituciones, no dan pasos para defender las condiciones y los puestos de trabajo de las subcontratas, serán responsables y cómplices de la penosa situación que viven las/os trabajadores/as..

LAB, con la intención de mejorar la situación en la que se encuentran los trabajadores/as de las subcontratas, ha puesto en marcha una nueva iniciativa, solicitando en todas las instituciones de Euskal Herria, que obligatoriamente se incluyan en los pliegos de subcontratación de obras o servicios una serie de medidas concretas.

Por ello, y teniendo el Ayuntamiento de Tolosa y los entes dependientes del mismo, sea cual sea su naturaleza jurídica, servicios y/u obras realizados a través de subcontratas, solicitamos la inclusión de clausulas en todos los pliego de contratación que dicha institución publique, que garanticen las siguientes medidas:

1.- Como mínimo, será de aplicación el convenio sectorial provincial. Si alguno de estos convenios no se encontrase vigente, se garantizará, hasta su renovación, el mantenimiento de todas las condiciones laborales que a los/as trabajadoras/es se les venian aplicando. Así mismo, las condiciones laborales que se les venian y continuarán aplicándose al personal, también serán de aplicación a las nuevas contrataciones.
Si existiese convenio o pacto propio de centro de trabajo o servicio, lo en él recogido, serán las condiciones mínimas de aplicación a los/as trabajadores/as del mismo tanto durante su vigencia como hasta su renovación, aplicándose subsidiariamente el convenio sectorial provincial.

2.- No podrán ser de aplicación convenios de empresa de ámbito estatal, ni sectoriales estatales, salvo que, en este último caso, no haya existido nunca ámbito de negociación sectorial provincial.

3.- No podrán iniciarse procedimientos de

hitzarmenean edota itunean jasotako baldintzetan, hitzarmenari ez lotzeko prozedurei ekin.

4,- Zerbitzua eskaintzen duen enpresa aldatuko balitz, langile guztiak subrogatuko dira.

5,- Pleguan jasoko litzatekeen zerbitzua burutzeko behar den langile kopuruari eutsiko zaio edonoiz. Ezin izango da kaleratze kolektibo edo indibidualik egin zio objektiboengatik.

Bajak, erretiroak, oporrak, eszedentziak, baimenak,... ematen direnean, langileak ordezkatu beharko dira.

6,- Genero berdintasuna, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak ezabatzeko helburuarekin.

7,-Lan Osasun arloan ezar daitekeen araudi oro beteko da; neurri berriak sartuko dira ere, lanpostu jakin batzuek izan litzaketen ezaugarri jakin batzuen baitan.

8,-Hizkuntz-eskubideak zerbitzua eta lanpostuak euskalduntzen direla berma dadin. Horretarako epeak eta laguntza neurriak ezarriko dira.

9,-Lana edo zerbitzuaren esleipena jaso duen enpresak, hura guztiz edo partzialki azpikontratatuko balu, hark bermatu beharko du ere, azpikontratazioaren kate osoan, pleguan jasotako klausula guztiak betetzen direla.

10,-Baldintza horiek beteko ez balira, zerbitzua eman zaion enpresa zigortuko da.

11,-Behar besteko neurriak artikulatuko dira udaleko langabezien ehuneko bat lan edo zerbituz hauek betetzera kontrata daitezen.

Goian aipatutako neurri hauek ezinbestekoak dira. Bestela, azpikontratatuko diren langileak baztertu eta babesik gabe geratuko direlako, eta dagokion erakundeak ardura handia izango duelako horretan.

inaplicación de las condiciones recogidas en el convenio o pacto de aplicación.

4.-. En caso de cambio de empresa que realiza el servicio, todos/as los trabajadoras/es serán subrogados.

5.- El numero de trabajadores/as necesario para realizar el servicio que se recoja en el pliego, deberá mantenerse en todo momento, no pudiéndose realizar despidos colectivos ni individuales por motivos objetivos.

En los casos de baja, jubilación, vacaciones, excedencias, permisos, ..., los/as trabajadores/as deberán ser sustituidos.

6.- Igualdad de genero, dirigida a eliminar desigualdades entre hombres y mujeres.

7.- Cumplimiento de toda la normativa aplicable en materia de Salud Laboral, así como inclusión de nuevas medidas en función de las características concretas que determinados puestos de trabajo podrían tener.

8.- Derechos lingüísticos, para garantizar la euskaldunización del servicio y los puestos de trabajo, estableciéndose plazos y medidas de apoyo.

9.- Si la empresa a la que se le adjudica la obra o servicio subcontratara total o parcialmente la/el misma/o, éste garantizará que en toda la cadena de subcontratación, también se cumplan todas las clausulas recogidas en el pliego.

10.- Si estas condiciones no se respetan, la empresa a la que se le ha concedido el servicio, será sancionada.

11.- Se articularán las medidas necesarias para la contratación de un % de personas desempleadas del municipio en estas obras o servicios.

Es necesario tomar medidas como las señaladas. De lo contrario los/as trabajadores/as subcontratados/as quedarían abandonados y desprotegidos, teniendo ésta Institución una gran responsabilidad.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

Gogorik balego, eta beti ere, langileei dagozkien eskubideak babestu aldera, LAB gertu legoke bidea egiteko, lege-mugez gain. Horregatik, adierazi nahi dugu erakunde horrekin edota bertan ordezkatuta dauden edozein alderdi politikorekin lan bilerak egiteko prest gaudela, arazo honetaz mintzatzeko eta konponbideak bilatzeko."

Si hay voluntad, y siempre en defensa de los derechos de los/as trabajadores/as, LAB esta dispuesto a recorrer un camino, por encima de los limites legales. Por ello, mostramos nuestra disposición de mantener contactos y reuniones de trabajo con la propia Institución o con cualquiera de los grupos políticos con representación en la misma, para tratar esta problemática y buscar las soluciones."

Jarraian, mozioa bozketara jarri da eta Bilduren eta Aralarren aldeko botoekin eta PSEE-PSOEren eta EAJ/PNVren abstentzioarekin, gehiengoz, onartu da.

Parte hartzeak:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: "*Ados egonik mozioan egiten den planteamentuarekin, kezka pare bat sortzen zaizkit pertinentziaz eta egokitasunaz: mozio hau, idatzita dagoen bezela, edozein herritan aurkeztu daitekeen edo aurkeztu den mozioa da, testu berarekin. Ondo dago LABek holako kanpaina egitea, baina egokitu beharko litzeke eskaera aurkezten den lekuari. Beste gogoeta bat sortzen didana da ea ez ote litzatekeen hobekiago holako demanda bat egitea udaletxean ordezkaritza duten indar guztien artean. Oniritzia emango diogu mozioari, baina bai kezka horiek garrantzitsuak direla."*

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSEE-PSOE: "*Nik ere baditut kezka batzuk eta, ikusirik lehenengo esaldia, asmo politikoa argi ikusten da. Hala eta guztiz, puntualizazio batzuk egin nahiko nituzke: Eusko Legebiltzarrean gai hau aztertzen ari dira eta nik utziko nuke azterketa hori bukatzen eta ikusi zer nolako erabakiak hartzen diren denen artean. Bestalde, segurtasun juridikoa eta udal legeak zer ikusia du gai honekin. Eta, azkenik, puntu gehienekin ados egon gaitezke, baina oso generikoak eta orokorrean eginda daude. Ni abstenitu egingo naiz."*

... Jon Aldazabal Etxeberria, EAJ/PNV: "*Esan beharra dago sarrera etzaigula oso txukuna iruditzen: Ipar aldea eta Gipuzkoa ahaztu dituzue! Gipuzkoan ere azpikontrataren arazoa badugu, baita Tolosan ere. Hori alde batera utzita, etzaigu iruditzen une oso egokia. Hauteskundeen bezperatan gaude eta korporazioa lotuko duen mozio bat da. Iruditzen zait Tolosan gauza dexente egin direla azpikontratren gaian, adibidez subrogazio gaietan, hitzarmen kolektiboak errespetatu beharrekoan. Gauz horiek landu dira eta jarraitu behar da horretan. Hemen jartzen diren gauza askotan udalak eskuduntzarik ez dauka eta Eusko Jaurlaritzan ere azpikontraten gaia lantzen ari dira. Guk abstentziotik joko dugu."*

... Lore Agirre Zipitria, Bildu: "Bat egingo dugu LABek aurkeztutako mozioarekin. Zerbitzu publikoko lanak langile publikoak egin beharko lituzke, langileen lan baldintzak hobeak direlako. Hauek bermatzeko baliabide gehio daude, bitarteko enpresak ez dute dirurik irabazten, eta nik uste lau urte hauetan zehar Tolosako udalean horrela aritu garela. Egokia ikusten dut mozioa! Hala ere, pozten naiz gauza asko egin direnaren pertzepzioa izatea arlo honen inguruan. Udalak baditu zerbitzuak azpikontratatuta. Iurramendin kasuan lau urte hauetan saiatu gera zuzeneko kontratazioak sustatzen. Gaur hartu dezakegun konpromisoa izan daiteke bide honetan jarraitzea. Pertinentea da hauteskunde aurretik edo ondoren?

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

Edozein egonda Udal gobernuan, hauek lotu beharreko gauzak dira eta eskatu dutena da Tolosako udalean sistematizatuta edukitzea klausula sozial hauek. Nik eskertuko nioke LAB-eri, eskeintzen duen laguntza hau guztia sistematizatzeko eta pleguetan estandarizatzeko klausula guzti hauen barneratzea.”

**3.-<u>Udal eta Batzar Nagusierako 2015eko maiatzaren 24an egingo diren hauteskundeetarako mahaikideak izendatzeko zozketaren emaitza onartzea</u>.**

**3.-<u>Aprobación de la relación confeccionada por sorteo de los componentes de las Mesas Electorales para las Elecciones Locales y Autonómicas a celebrarse el día 24 de mayo de 2015</u>.**

Tolosako Udaletxean, 2015eko apirilaren 28an, egin da maiatzaren 24an izango diren hauteskundeetako mahaiak osatzeko kideen zozketa. Zozketaren funtzionamendua laburbilduta hau da:

Gainetik azalduta, hauteskundeetan ematen den funtzionamendua honako hau da:

- INE erakundeak mahaien zerrenda bat bidaltzen du hauteskundeak izan baino 6-bat hilabete lehenago. Mahaien zerrenda horietan hauteskundeetan egokituko diren mahaiak agertzen dira, beraien helbide eta guzti. Orduan udaletxeek datu horiek aztertu eta oniritzia eman behar diote edota aldaketak proposatu (eskola bat ez dagoelako orain edota obretan daudelako,…) Beraien artean beraz adosten dira zeintzuk izango diren mahaiak. INE-koek hau egin aurretik proposatzen dute (beharrezkoa denean) mahai gehiago sortu edota mahairen bat kendu behar dela. Azkenean helburua mahaiak definitzea da eta akordio batera iristea, baina hauteskundeak baino askoz aurretik definitzen dira. Informazio honekin, gure datu basean *mahaiak* izeneko taula bat osatuko dugu.
- INE erakundeak bi CD bidaltzen ditu hauteskundeak izan baino 2 hilabete lehenago. Batean INE-k garatutako CONOCE programa dator (momentu honetan 3.0.0 bertsioa), eta bestean dagokion udalerriko hautesleen datu basea. Lehenengo programa instalatu beharra dago, eta gero bigarren CD-a sartu eta kopiatu hautesleen datu basea sistemak esaten duen lekuan. Programa honen bidez, hautesleek beraien datuak kontsultatu ahal izango dituzte udaletxeari (udalak horrela onartzen badu) eta erreklamazioak ere programa honen bidez egin ahal izango dira udaletxean bertan.

- Erreklamazio garaia bukatzen denean, eta aurreko programaz baliaturik, hautesleen fitxategi bat sortu beharko dugu. Fitxategi hau sortzeko CONOCE-ko *Generar Ficheros programa* exekutatuko dugu, ondoren, nolako fitxategia sortu nahi dugun aukeratu behar dugu, lau mota azaltzen zaizkigu :

  *Formato anterior :*

  *- Longitud fija (756 caracteres)*

  *- Separado por ( ;)*

  *Formato servicio de información (SI) :*

  *- Longitud fija (791 caracteres CER ó 817 caracteres CER+CERE)*

  *- Separado por ( ;)*

gure kasuan, aurreko formatuko “*separado por (;)”* aukeratuko dugu

Ondoren, Populazio-eremua aukeratuko :

-Hautesle guztiak
-70 urtetik beherako hauteslegoa eta titulazio maila 40 (BUP, FP edo gehiago).

-70 urtetik beherako hauteslegoa eta titulazio maila 30 (graduatu eskolarra edo parekoa).

-70 urtetik beherako hauteslegoa eta titulazio maila 20 ego gehiago (irakurtzen eta idazten dakitenak).

Udaletxe bakoitzaren esku dago zein aukeraketa egin. Tolosan laugarren aukera erabiltzen dugu, 70 urtetik behera eta idazten eta irakurtzen dakitenak.

Orain, zein Errolda eremu aukeratu behar dugu:

-CER
-CER y CERE

Beti lehenengo aukera hartzen dugu, CEREkoek nahiz eta botoa eduki erbestean daudenen zerrenda baita eta zozketarako ez zaigu baliagarri.

Prozesu honek testu fitxategi bat sortzen du egitura berezi batekin.

- Orain CONOCE-ko programa alde batera utziko dugu eta udaletxean dugun zozketa.mdb access base datua zabalduko dugu. Datu base honen bidez, aurretik sortu dugun testu fitxategia kargatuko dugu. **Hautesleen artetik, Tolosan beste iragazpen batzuk ere ezartzen ditugu. Adibidez, hauteskundeetan aurkezten diren pertsonak, mahai arduradunak e.a. baztertzen ditugu, zozketan parte har ez dezaten.** Hautesleen poltsa prestaturik, pleno aretoan zozketa egiten dugu *zozketa.mdb* erabiliz, eta zozketa burututakoan hainbat agiri eta jakinarazpen inprimatzen ditugu programa honen bidez. Gero erreklamazio epea hasten da, eta programa berarekin kudeatzen ditugu ordezkapenak. Onartzen diren erreklamazioetan hurrengo sistema erabiltzen dugu:

Erreklamazioa mahaiburuak egin badu, mahaiburuen lehenengo ordezkoak hartzen du bere tokia eta bigarren ordezkoak lehengo ordezkoaren tokia. Bigarren ordezkoaren tokia hutsik geratzen da. Kasu berezietan eta hauteslerik geratzen ez bada, zerrendako hurrengo hauteslea hartuko litzateke.

Hortaz, Udalbatzak, aho batez, berbaieztatu ditu zozketan ateratako emaitzak, dagokion espedientean jasotzen direnak.

**4.-2/2015 kreditu aldaketaren espedientea onartzea.**

**4.-Aprobación del expediente de modificación de créditos 2/2015.**

Tolosako Udalaren 2015ko Aurrekontuaren barnean kreditu transferentzien, gaikuntzaren eta kreditu gehigarrien bidez izapidetzen den espedientea tramitatzen ari da.

# OHIZKO OSOKO BILKURA

## 2015.04.28

Kreditu aldaketarako proposamena hau da:

| AZALPENA | PARTIDA | | | Hasierako | Aldatutako | Kreditu Aldaketa | | Aldatutako | Finantz. | Finantz. | Finantz. | Finantz. | Finantz. | Finantz. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Aurrekontua | Aurrekontua | | | Aurrekontua | Kreditu | Kanpoko | Sarrera | lotutak | G. orokor. | Guztira |
| | Org | Eko | Fun | 2015 | 2/2015 esp. | Gehi | Jeitsi | 2/2015 esp. | transf. | ekarpenak | ndiagoa | erakina | gerakina | 2/2015 esp. |
| KAP.1 PERTSONAL GASTUAK | | | | | | | | | | | | | | |
| | 0200 | 150.00 | 92900 | 0,00 | **100.000,00** | 100.000,00 | 0,00 | **100.000,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 100.000,00 | **100.000,00** |
| **Kap.1:** | | | | **0,00** | **100.000,00** | **100.000,00** | **0,00** | **100.000,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **100.000,00** | **100.000,00** |
| KAP.2 ONDASUN ARRUTEN GASTUAK | | | | | | | | | | | | | | |
| Azpiegituren mantenimendua. Bide pu | 0700 | 210.01 | 15320 | 229.987,00 | **332.987,00** | 103.000,00 | 0,00 | **103.000,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 103.000,00 | **103.000,00** |
| Azpiegituren mantenimendua. Landa | 0700 | 210.01 | 41400 | 25.000,00 | **40.000,00** | 15.000,00 | 0,00 | **15.000,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 15.000,00 | **15.000,00** |
| Edifizioen mantenimentua. Beotibar | 1000 | 211.01 | 34220 | 10.000,00 | **30.000,00** | 20.000,00 | 0,00 | **20.000,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 20.000,00 | **20.000,00** |
| Jarduerak. Kulturaren sustapena | 0800 | 226.06 | 33410 | 214.065,00 | **235.065,00** | 21.000,00 | 0,00 | **21.000,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 21.000,00 | **21.000,00** |
| Jarduerak. Jaiak | 0800 | 226.06 | 33800 | 337.000,00 | **353.500,00** | 16.500,00 | 0,00 | **16.500,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 16.500,00 | **16.500,00** |
| Jarduerak. Merkataritza | 1100 | 226.06 | 43100 | 18.000,00 | **30.000,00** | 12.000,00 | 0,00 | **12.000,00** | 12.000,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | **12.000,00** |
| Jarduerak. Berdintasuna | 1400 | 226.06 | 23160 | 99.315,00 | **94.315,00** | 0,00 | 5.000,00 | **-5.000,00** | -5.000,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | **-5.000,00** |
| **Kap.2:** | | | | **933.367,00** | **1.115.867,00** | **187.500,00** | **5.000,00** | **182.500,00** | **7.000,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **175.500,00** | **182.500,00** |
| KAP.4 TRANSFERENTZIA ARRRUNTAK | | | | | | | | | | | | | | |
| Dirulaguntzak. Jaiak | 0800 | 481.01 | 33800 | 49.087,00 | **54.087,00** | 5.000,00 | 0,00 | **5.000,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 5.000,00 | **5.000,00** |
| Dirulaguntzak. Merkataritza | 1100 | 481.01 | 43100 | 154.500,00 | **142.500,00** | 0,00 | 12.000,00 | **-12.000,00** | -12.000,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | **-12.000,00** |
| Dirulaguntzak. Berdintasuna | 1400 | 481.01 | 23160 | 0,00 | **5.000,00** | 5.000,00 | 0,00 | **5.000,00** | 5.000,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | **5.000,00** |
| **Kap. 4 :** | | | | **203.587,00** | **201.587,00** | **10.000,00** | **12.000,00** | **-2.000,00** | **-7.000,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **5.000,00** | **-2.000,00** |
| KAP.6 INBERTSIOAK | | | | | | | | | | | | | | |
| Landa auzoetako plana | 0700 | 601.07 | 41400 | 120.000,00 | **180.000,00** | 60.000,00 | 0,00 | **60.000,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 60.000,00 | **60.000,00** |
| Elosegi parkea | 0700 | 601.44 | 17110 | 106.000,00 | **270.000,00** | 164.000,00 | 0,00 | **164.000,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 164.000,00 | **164.000,00** |
| Erabilera orokorreko azpiegiturak | 0700 | 609.01 | 15320 | 17.000,00 | **38.000,00** | 21.000,00 | 0,00 | **21.000,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 21.000,00 | **21.000,00** |
| Hainbat eraikinetako obrak | 0700 | 622.01 | 92031 | 60.000,00 | **115.000,00** | 55.000,00 | 0,00 | **55.000,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 55.000,00 | **55.000,00** |
| Kondeaneko aldapako etxebizitzak | 0700 | 622.17 | 920.31 | 0,00 | **1.165.000,00** | 1.165.000,00 | 0,00 | **1.165.000,00** | 0,00 | 473.000,00 | 0,00 | 0,00 | 692.000,00 | **1.165.000,00** |
| Makineria. Bide publikoak | 0700 | 623.01 | 15320 | 0,00 | **30.500,00** | 30.500,00 | 0,00 | **30.500,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 30.500,00 | **30.500,00** |
| Instalazioak. Landa auzoak | 0700 | 623.02 | 41400 | 0,00 | **103.000,00** | 103.000,00 | 0,00 | **103.000,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 103.000,00 | **103.000,00** |
| Ibilgailuak. Udaltzaingoa | 0400 | 624.01 | 13000 | 0,00 | **21.500,00** | 21.500,00 | 0,00 | **21.500,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 21.500,00 | **21.500,00** |
| Zenbait ekipamendu | 0700 | 625.99 | 15340 | 25.000,00 | **32.000,00** | 7.000,00 | 0,00 | **7.000,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 7.000,00 | **7.000,00** |
| Bestelako inbertsioak. Bide publikoak | 0700 | 629.01 | 15320 | 0,00 | **10.000,00** | 10.000,00 | 0,00 | **10.000,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 10.000,00 | **10.000,00** |
| **Kap. 6 :** | | | | **328.000,00** | **1.965.000,00** | **1.637.000,00** | **0,00** | **1.637.000,00** | **0,00** | **473.000,00** | **0,00** | **0,00** | **1.164.000,00** | **1.637.000,00** |
| KAP.7 KAPITAL TRANSFERENTZIAK | | | | | | | | | | | | | | |
| Kapital transferentziak Tolosa Lantz | 1000 | 733.01 | 34210 | 0,00 | **141.000,00** | 141.000,00 | 0,00 | **141.000,00** | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 141.000,00 | **141.000,00** |
| Kapital dirulaguntzak familiei (etxebi | 0600 | 780.01 | 15220 | 35.000,00 | **235.000,00** | 200.000,00 | 0,00 | **200.000,00** | | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 200.000,00 | **200.000,00** |
| **Kap.7 :** | | | | **35.000,00** | **376.000,00** | **341.000,00** | **0,00** | **341.000,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **341.000,00** | **341.000,00** |
| KAP.8 FINANTZA AKTIBOAK | | | | | | | | | | | | | | |
| Akzioak eskuratzea | 0200 | 853.01 | 61100 | 0,00 | **0,00** | 0,00 | 0,00 | **0,00** | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | **0,00** |
| **Kap.8 :** | | | | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** | **0,00** |
| GUZTIRA : | | | | **1.499.954,00** | **3.758.454,00** | **2.275.500,00** | **17.000,00** | **2.258.500,00** | **0,00** | **473.000,00** | **0,00** | **0,00** | **1.785.500,00** | **2.258.500,00** |

## OHIZKO OSOKO BILKURA

## 2015.04.28

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1. GASTU IGOERAREN PROPOSAMENA** | | | |
| Gastu igoeraren banaketa kapituluka hau da: | | | |
| 1.1 Gastu arrunta | | | |
| Kap. 1 Pertsonal gastuak | 100.000,00 | | |
| Kap. 2 Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak | 187.500,00 | | |
| Kap. 4 Transferentzi arruntak | 10.000,00 | 297.500,00 | |
| Kap. 3 Finantza gastuak | | 0,00 | |
| Kap. 9 Finantza pasiboak (maileguen amortizazioa) | | 0,00 | **297.500,00** |
| 1.2 Inbertsioa | | | |
| Kap. 6 Inbertsio errealak | | 1.637.000,00 | |
| Kap. 7 Kapital transferentziak | | 341.000,00 | |
| Kap. 8 Finantza aktiboak | | 0,00 | **1.978.000,00** |
| **GASTU IGOERA PROPOSAMENA GUZTIRA:** | | | **2.275.500,00** |
| **2. FINANTZIAZIOA** | | | |
| **2.1 Kreditu transferentzien bidez finantziatuta** | | | |
| **Gastu arrunta :** | | | |
| Kap. 1 Pertsonal gastuak | 0,00 | | |
| Kap. 2 Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak | 5.000,00 | | |
| Kap. 4 Transferentzi arruntak | 12.000,00 | 17.000,00 | |
| Kap. 3 Finantza gastuak ( maileguen interesak) | | 0,00 | **17.000,00** |
| **Inbertsioa** | | | |
| Kap. 6 Inbertsio errealak | | 0,00 | |
| Kap. 7 Kapital transferentziak | | 0,00 | **0,00** |
| **Kreditu tansferentzien bidez finantziatuta guztira:** | | | **17.000,00** |
| **2.2 Sarrera berriak edo handiagoak izateagatik kreditu gaikuntzaren bidez finantziatuta** | | | |
| Kap. 3 Tasak eta beste sarrerak | | | |
| Kap. 4 Transferentzi arruntak | | | |
| Kap. 5 Ondare sarrerak | | 0,00 | |
| Kap. 7 Kapital transferentziak | | 473.000,00 | **473.000,00** |
| **2.3 Dirutzaintza gerakinaren bidez finantziatuta** | | | |
| Kap. 8 Finantza aktiboak | | | **1.785.500,00** |
| **FINANTZIAZIOA GUZTIRA:** | | | **2.275.500,00** |
| **3. LABURPENA** | | | |
| **Gastu igoera guztira** | | | **2.275.500,00** |
| **Finantziazioa :** | | | |
| - Kreditu transferentzia | | 17.000,00 | |
| - Kreditu gaikuntza | | 473.000,00 | |
| - Diruzaintzako gerakinarekin kreditu gehigarriak | | 1.785.500,00 | **2.275.500,00** |

# OHIZKO OSOKO BILKURA

## 2015.04.28

Hau dena finantzatzen duten baliabideak hauek dira, kapituluka:

2015eko Sarrera eta Gastuen Aurrekontuen bilakaera, 2/2015 zenbakidun Kreditu Aldaketarako espedientea barne, ondorengo koadroetan laburtzen da kapituluka:

| AZALPENA | Hasierako Aurrekontua 2015 | Kreditu Aldaketa 1/2015 | Kreditu Aldaketa 2/2015 | Behin-betiko Aurrekontua 2015 |
|---|---|---|---|---|
| 1. Pertsonal gastuak | 7.837.733,00 | | 100.000,00 | **7.937.733,00** |
| 2. Ondasunen erosketa eta ze | 8.233.813,00 | 88.415,03 | 182.500,00 | **8.504.728,03** |
| 3. Finantza gastuak | 213.341,00 | | | **213.341,00** |
| 4. Transferentzi arruntak | 3.719.197,00 | 253.307,37 | -2.000,00 | **3.970.504,37** |
| 6. Inbertsio errealak | 2.829.000,00 | 1.505.440,04 | 1.637.000,00 | **5.971.440,04** |
| 7. Kapital transferentziak | 254.000,00 | | 341.000,00 | **595.000,00** |
| 8. Aktibo finantzarioak | 600.000,00 | 4.195,00 | | **604.195,00** |
| 9. Pasibo finantzarioak | 887.916,00 | | | **887.916,00** |
| **GASTUAK GUZTIRA** | **24.575.000,00** | **1.851.357,44** | **2.258.500,00** | **28.684.857,44** |

| AZALPENA | Hasierako Aurrekontua 2015 | Kreditu Aldaketa 1/2015 | Kreditu Aldaketa 2/2015 | Behin-betiko Aurrekontua 2015 |
|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 5.585.300,00 | | | **5.585.300,00** |
| 2. Zeharkako zergak | 230.000,00 | | | **230.000,00** |
| 3. Tasak eta bestelako sarrera | 3.804.890,00 | | | **3.804.890,00** |
| 4. Transferentzi arruntak | 12.504.160,00 | 38.303,07 | | **12.542.463,07** |
| 5. Ondasun sarrerak | 1.088.650,00 | | | **1.088.650,00** |
| 6. Inbertsioen besterenganak | 156.000,00 | | | **156.000,00** |
| 7. Kapital transferentziak | 6.000,00 | 184.883,65 | 473.000,00 | **663.883,65** |
| 8. Aktibo finantzarioak | 600.000,00 | 1.628.170,72 | 1.785.500,00 | **4.013.670,72** |
| 9. Pasibo finantzarioak | 600.000,00 | | | **600.000,00** |
| **SARRERAK GUZTIRA** | **24.575.000,00** | **1.851.357,44** | **2.258.500,00** | **28.684.857,44** |

Beraz, 2/2015 espedientearen aurrekontu partiden kreditu igoeren proposamenak eta finantzatzen dituzten errekurtsoak aztertu ondoren.

Consecuentemente, vistas las propuestas de incremento de créditos de las partidas presupuestarias del expediente 2/2015 y vistos los recursos para su financiación.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

Kontuan harturik, gastuaren premiazko beharra nahikoa egiaztatzen dela, hala nola igoera horiek finantzatzen dituzten errekurtsoen efektibotasuna, eta kreditu aldaketa honek aurrekontuaren garapena arindu eta zerbitzuen kudeaketa hobetu egingo duela.

Considerando que la necesidad del gasto ha sido suficientemente acreditada, así como la efectividad de los recursos para su financiación y que esta modificación de créditos agilizará el desarrollo del presupuesto y mejorará la gestión de los servicios.

Ikusiz kontuhartzaileak jaulki duen txostena, non agerian dagoen espedientearen instrukzioa indarrean dagoen legezko arautegiarekin bat datorrela, eta Ogasun batzordeak, 2015eko apirilaren 23an jaulkitako aldeko diktamena, Udalbatzak, aho batez,

Visto el informe elaborado por el interventor en el que señala que la instrucción de este expediente se ajusta a lo dispuesto por la legislación vigente, y el dictamen favorable de la comisión de Hacienda, de fecha 23 de abril de 2015, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad,

**ERABAKI DU:**

**ACUERDA:**

**Lehena.-**Tolosako Udalaren 2015eko aurrekontuari dagokion 2/2015 kreditu aldaketa haseraz onartzea.

**Primero.-** Aprobar inicialmente la modificación de créditos 2/2015 del Presupuesto de 2015 del Ayuntamiento de Tolosa.

**Bigarrena.-**Erreklamatzeko aukera egon dadin, espedientea hamabost egun jendaurrean jarrita edukitzea. Erreklamaziorik ez badago, erabakia hau behin betikoa izango da.

**Segundo.-** Someter el expediente a exposición pública, por el plazo de quince días, y sí durante dicho plazo no se presentara reclamación alguna, se entenderá el acuerdo de carácter definitivo.

Parte hartzeak:

... Lore Agirre Zipitria, Bildu: "Aurreko Osoko bilkuran 2012ko aparteko paga ordaintzea onartu zen, hori da kreditu aldaketaren arrazoi *nagusienetakoa. Bide batez, aprobetxatzen da kreditu aldaketa hau martxan jarri nahi diren beste zenbait lan burutu ahal izateko. Barneratzea, baita ere, Beotibar pelotalekuan beste aktuazio bat, Elosegi parkea txukundu ahal izateko beste fase baterako dirua jartzea herritarrei iriki ahal izateko parkea. Samaniego ikastetxeko parkea txukuntzea, e.a. 2014ko likidazioaren emaitza positiboaren berri eman genuen duela aste batzuk eta, emaitza positibo horietaz baliatuta, ahalbideratzen da proiektu guzti hauek martxan jartzea."*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: "*Pozgarria da baliabideak izatea Udalak herritarrek hainbat aldiz eskatutako proiektuak martxan jartzeko."*

... Jose Ignacio Asensio Basterra, PSEE-PSOE: "*Mantenimendu lanak edo aktuazio hauek beharrezkoak iruditzen zaizkit eta baiezkoa emango diogu proposatutakoari*."

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: "*Kreditu aldaketa hau egitera goaz likidazio prozesua eginda dagoenean. Urtero, apirilean ematen zitzaigun likidazioaren berri. Badakigu aurten Kontuhartzailetzan lan asko dutela eta ez dutela aukerarik izan memoria egiteko; hori errespetatzen dugu. Baina esan behar dugu aukera izan zuela Alkatetzak, martxoaren 31n, horren berri emateko hedabideetan, eta gustatuko litzaiguke horren berri guri ematea, ez orain, kreditu aldaketa onartu behar denean. Laburpentxo bat jaso genuen aurreko astean Ogasun batzordean. Esan behar, behin eta berriz, deklarazioetan azaltzen dela, eta martxoaren 31an egidako horretan, Ataria iturri izanik, esan zen likidazio negatibotik positibora pasa zela udala. Datu horrekin esan nahi da egoera oso txarrean ginela esatean 26 milioi eskaxetik 13 milioitara jeitsi dela zorra. Aurreko plenoko saio batean esan genuen horrek nabardurak behar zituela; hor Elosegi parkearen zorraren ordainketa sartzen da. Egia da urtez-urte milio bat jartzen dugula, baina, baita ere, 8 milioitatik, hasieratik jarri zirenak, 3 milio gerakinetatik zirela, 2011 arte osatutako gerakinak ziren. Bestalde, zenbait zor kitatu dira ditugun hondareak salduta. Kreditu aldaketari erreparatuz, esan beharra dago, aurretik Alkatetzari aipatu bezala, gu ados gaudela egiten diren proposamenekin, baina guk proposatu dugu eranstea Nafarroa etorbidearen berrurbanizazioa eta Zumalakarregi dagoen eran jartzea. Horrek ekarriko du dinamizazio ekonomikoa. Mugikortasun ikuspuntutik abantailak izango ditu. Eskatuko genukeena da ejekuzio proiektua egitea eta dagokion kreditua jartzea.*"

... Lore Agirre Zipitria, Bildu: "*Beti dugu eztabaida hau. Kontu ematen dugun baikoitzean dagoen egoera aurkeztea da. 2011-2010ean egia da aurrekontuen emaitza negatiboa izan zela. Egia da hurrengo urtetan positiboa izan dela. Egoera ekonomikoaren berri herritarrak izan behar dute, beti adierazi izan dugu. Kreditu aldaketarekin lotuta, badakizue bileran hitzegin den bezela, Nafarroa etorbideko txukuntzearen aurreproiektua egina dagoela, eta zer dimensio ekonomikoa suposa dezakeen badakigu eta gure jokatzeko moduarengatik pixkanaka goaz inguru hori txukuntzen.*"

**5.-2015/2016 ikasturterako ordenantza fiskalen aldaketa haseraz onartzea.**

**5.- Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza fiscal correspondiente al curso 2015/2016.**

Ogasun batzordeak 2015eko apirilaren 23an jaulkitako aldeko diktamena kontuan hartuta, Udalbatzak, Bildu, Aralar eta PSEE-PSOE alderdien aldeko botoekin eta EAJ/PNV alderdiaren abstentzioarekin, gehiengoz,

## ERABAKI DU:

**Lehen.-** Ogasun batzordeak aurkezturiko diktamena, 2013rako Ordenantza Fiskalen aldaketari dagokiona, behin-behingoz bere egitea.

**Bigarren.-** Hartutako akordioa eta bideratutako espedientea jendaurrean jartzea hogeita hamar eguneko epez, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 zk.dun Arau Foralak agindu bezala: Udaletxeko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historiko boletinean eta egunkaririk zabalduenetako batean iragarkia argitaratuz.

**Hirugarren.-** Aipatutako erabakia behin betikoa jotzea beste erabakirik hartu beharrik gabe, jendaurreko erakustaldi hori inolako erreklamaziorik jaso gabe agortu bada.

Hala ere, erabaki diren akordio bat edo batzuk erreklamazio xede bihurtzen badira, Udalbatzak horiei buruzko erabakiak hartzera joko du, aurkeztu diren erreklamazioei buruzko ebazpenak emanez edo aipatu aldaketen behin-betiko testua onetsiz.

Alabaina, ez da erabaki berririk hartu behar izango jendaurreko erakustaldiaren barru erreklamazio xede izan ez den edo ez diren akordioei buruz, akordio horiek behin-betikoz onartutakotzat joko baitira.

Aipatutako diktamena:

**2.1.17 Musika eskola**

Kuota guztiei martxoako urtearteko KPIa aplikatzea diktaminatzen da. Hau da, - % 0,45ekoa. Ondorioz, hauek dira kuotak:

| MUSIKA ESKOLA ZERBITZUA | SERVICIO ACADEMIA DE MUSICA | TARIFA OROKORRA(General)2014-2015 | TARIFA TOLOSA2014/2015 | TARIFA OROKORRA(General)2015-2016 | TARIFA TOLOSA2015/2016 |
|---|---|---|---|---|---|
| A) Musika eskola | Escuela de Música: | | | | |
| 1.maila | 1º nivel | 274,00 | 184,00 | 273,00 | 183,00 |
| 2.maila | 2º nivel | 821,00 | 545,00 | 817,00 | 543,00 |
| 2.maila solfeorik gabe | 2º nivel sin solfeo | 544,00 | 364,00 | 542,00 | 362,00 |
| 3.maila | 3º nivel | 984,00 | 657,00 | 980,00 | 654,00 |
| 3.maila, osagarririk gabe | 3º nivel, sin complementaria | 684,00 | 456,00 | 681,00 | 454,00 |
| 4.maila | 4º nivel: | | | | |
| a) Musika taldea | a) Conjunto musical | 137,00 | 91,00 | 136,00 | 91,00 |
| b) instrumentua + musika taldea | b) instrumento + conjunto musical | 684,00 | 456,00 | 681,00 | 454,00 |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Ikasle errefortzatuak | Alumnos reforzados | 1.258,00 | 840,00 | 1.252,00 | 836,00 |
| Informatika musikala | Informática musical | 274,00 | 184,00 | 273,00 | 183,00 |
| Bigarren instrumentua | Segundo instrumento | 274,00 | 184,00 | 273,00 | 183,00 |

## 2.1.18 Kultur tailerrak

Kuota guztiei martxoako urtearteko KPIa aplikatzea diktaminatzen da. Hau da, -% 0,45e koa. Ondorioz, hauek izango dira kuotak:

| KULTUR LANTEGIAK<br>IKASTAROA | TALLERES CULTURALES<br>CURSO | TARIFA OROKORRA (General) 2014-2015 | TARIFA TOLOSA 2014-2015 | TARIFA OROKORRA (General) 2015-2016 | TARIFA TOLOSA 2015-2016 |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Pintura ikastaroa.14 urtez gorakoak | Curso de pintura. Mayores de 14 años | 283,00 | 189,00 | 282,00 | 188,00 |
| 2. Eskulanak.6-14 urte bitartekoak | Manualidades. De 6 a 14 años. | 208,00 | 139,00 | 207,00 | 138,00 |
| 3. Zeramika ikastaroa, urteko | Curso de cerámica, anual | 283,00 | 189,00 | 282,00 | 188,00 |
| 4. Antzerki ikasturtea | Curso de teatro, anual | 253,00 | 168,00 | 252,00 | 167,00 |
| 5. Argazkigintza (100 ordu) | Fotografía (100 horas) | 341,00 | 226,00 | 339,00 | 225,00 |
| 6. Balleta | Ballet | 216,00 | 144,00 | 215,00 | 143,00 |
| 7. Baleta aurreratua | Ballet avanzado | 294,00 | 197,00 | 283,00 | 196,00 |
| 8. Balleta (puntak) | Ballet (puntas) | 81,00 | 53,00 | 81,00 | 53,00 |
| 9. Dantza garaikidea | Baile contemporaneo | 294,00 | 197,00 | 283,00 | 196,00 |
| 10. Egur taila | Talla de madera | 283,00 | 189,00 | 282,00 | 188,00 |
| 11. Ehoziriak eta bainika | Encaje de bolillos y vainica | 283,00 | 189,00 | 282,00 | 188,00 |

## 2.1.19. Udal Euskaltegia

Euskara batzordeak hala diktaminatuta, beste hainbat kurtso ematea diktaminatzen da:

- 4 ordu astean
- 8 ordu astean
- 8 ordukoa (5 ordu aurrez aurre eta 3 ordu autoikaskuntza)

Hobariei dagokienez, Tolosan erroldatutako ikasleei, ordenantza fiskaletan azaltzen diren baldintzak betez gero, %50eko hobaria ematen zitzaien. Orain mailaren arabera diktaminatzen da (beti ere, Tolosan erroldatutakoei eta ordenantza fiskaletan azaltzen diren baldintzak betetzen dituztenei):

- B2 arte: % 75eko hobaria
- C1: % 50eko hobaria
- C2: %25eko hobaria

Bete beharreko baldintzetako bat ikasturtean gutxienik %85eko asistentzia izatea da. Jokin Azkuek dio, errendimentu asistentziala ez ezik, titulua lortzen dutenei eman behar zaiela hobari handiagoa. Hau da, %85eko asistentzia dutenei, %50eko hobaria ematea orain arte bezala, eta titulua lortzen dutenei, hobaria handitu edo doakoa izatea. Ahalegin berezia egiten baitute.

Kuota guztiei martxoako urtearteko KPIa aplikatzea diktaminatzen da. Hau da, -% 0,45e koa. Murrizketa hori kontuan hartuz, eta ikastaro berriak sartuz, honela geratzen da taula:

| EUSKALTEGIA | EUSKALTEGIA | **2015-2016 €** |
|---|---|---|
| 1.- Egunean 2,5 ordu, astean 10, 9 hilabete. | 1.- 2,5 horas diarias, 10 semanales, 9 meses. | |
| Matrikula | Matrícula | 402,00 |
| Materiala<br>A1- A2 - B1mailak | Material<br>Niveles A1 - A2 y B1 | 18,00 |
| B2 maila | Nivel B2 | 32,00 |

| | | |
|---|---|---|
| C1 maila | Nivel C1 | 44,00 |
| 2.- Egunean 2 ordu, astean 8, 9 hilabete. | 2.- 2 horas diarias, 8 semanales, 9 meses. | |
| Matrikula | Matricula | 324,00 |
| Materiala<br>A1- A2 - B1mailak | Material<br>Niveles A1 - A2 y B1 | 15,00 |
| B2 maila | Nivel B2 | 26,00 |
| C1 maila | Nivel C1 | 43,00 |
| 3.- Modulu konbinatuak. Astean 8 ordu, 9 hilabete: 5 ordu aurrez-aurrez eta 3 ordu autoiikaskuntza, tutoritzarik gabe. | 3.- Módulos combinados. 8 horas semanales, 9 meses: 5 horas presenciales y 3 horas autoaprendizaje sin tutoría. | |
| Matrikula | Matrícula | 224,00 |
| Materiala<br>A1- A2 - B1mailak | Material<br>Niveles A1 -A2 y B1 | 15,00 |
| B2 maila | Nivel B2 | 26,00 |
| C1 maila | Nivel C1 | 43,00 |
| 4.- Egunean 2 ordu, astean 6, 9 hilabete. | 4.- 2 horas diarias, 6 semanales, 9 meses. | |
| Matrikula | Matrícula | 250,00 |
| Materiala<br>A1- A2 - B1mailak | Material<br>Niveles A1 -A2 y B1 | 14,00 |
| B2 - alfabetatzen | Nivel B2 -alfabetización | 19,00 |
| C1 maila | Nivel C1 | 31,00 |

| | | |
|---|---|---|
| 5.- Egunean 2,5 ordu, astean 5 ordu, 9 hilabete.<br>Matrikula<br>Materiala, HABEren azterketak prestatzeko taldeak. | 5.- 2,5 horas diarias, 5 semanales, 9 meses.<br>Matrícula<br>Material, grupos preparación exámenes de HABE. | 201,00 |
| B1 maila | Nivel B1 | 11,00 |
| B2 - alfabetatzen | Nivel B2 - alfabetización | 16,00 |
| C1 maila | Nivel C1 | 26,00 |
| C2 maila | C2 maila | 140,00 |
| 6.- Egunean 2 ordu, astean 4, 9 hilabete. | 6.- 2 horas diarias, 4 semanales, 9 meses. | |
| Matrikula | Matrícula | 164,00 |
| Materiala<br>A1- A2 - B1mailak | Material<br>Niveles A1 -A2 y B1 | 9,00 |
| B2 maila | Nivel B2 | 16,00 |
| C1 maila | Nivel C1 | 22,00 |
| 7.- Autoikaskuntza | 7.- Autoaprendizaje | |
| Ikasturte osoa, matrikula eta materiala barne. | Curso completo, matrícula y material. | 629,00 |
| Ikasturtearen zatia, tutoretzako, matrikula eta materiala barne. | Curso no completo, por tutoría, matrícula y material incluídos. | 39,00 |
| 8.- Bestelako moduluak, orduko.<br>Matrikula<br>Materiala | 8.- Otros módulos, por hora.<br>Matrícula<br>Material | 1,20 |

| | |
|---|---|
| | 0,09 |

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: "*Euskara departamentutik udal gobernu honek proposatzen du ikastaro eta modulo berri batzuk sartzea Euskaltegian, ikusten dugulako aldatu direla, alde batetik, jendearen eskakizunak eta, bestetik, kurtsoaren iraupena eta formatoa. Horregatik planteatzen dira iraupen laburragoko kurtsoak, baita ere izaera mixtoa izan dezaketen kurtsoak, orain erabat presentzialak, eta hurrengo urteari begira planteatzen da eskeintzea nagusiki presentziala, baina gero ikasleari etxean lan egitea eskainiko den modalitatea. Hobaria emateko sistema aldatzea proposatzen da; orain Tolosarrek %50eko hobaria zeukaten %85eko asistentziarekin. Orain planteatzen da hobariaren kantitatea aldatzea ikas mailaren arabera, helburua delako jendeak euskaraz ikastera bultzatzea. Diskusioa egon da EAJrekin ea B2 maila bitarteko hobariak eman behar diren asistentziaren arabera bakarrik edo azterketa gainditzen dutenei bakarrik. Orain arteko irizpidearekin jarraituko dugu, asistentzia nahikoa dela. Besteak beste, legegintzaldi honetan, Diputazioak antolatutako udal ekimenen barruan, azterketa sakon bat egon da "Euskalduntzearen doakotasunaren bidea" izenekoa eta bertan parte hartu dute udal ordezkariek, politiko eta teknikoek, euskaltegi publilko eta pribatutako ordezkariek eta Diputazioako teknikariek. Atera diren emaitzen arabera, planteamentua izan da hobariak eman behar direla asistentziaren arabera eta ez maila gainditzearen arabera. Horregatik Gipuzkoan lortu nahi den irizpide batasun horren baitan kokatzeko etzaigu egokia iruditzen EAJk egiten duen planteamendua, hobari gehigarri hori ematea maila gainditzeagatik.* "

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ/PNV: "*Gure planteamendua da mantentzea dauden hobariak irizpide berdinekin. Baina proposatzen dugu, diru gehigarri bat egongo balitz, ikasmaila gainditzen dutenentzat diru hori gordetzea eta ematea. Prest gaude onartzeko maila gainditzen dutenei, ez %50 ematea, %100 finantzatzea baizik, esfortzu gehigarri bat egiten dutelako. Ez dut uste egokia denik dirulaguntza politika batean, betidanik egin dugulako, jarraitzea klasera joateagatik eta han egoteagatik, horregatik bakarrik, bekatze sistemarekin jarraitzea. Horregatik planteatzen dugu orain artekoa mantendu, ez kaltetu, baina gehigarririk balego horiek izatea ikasmaila gainditzen dutenentzat. Nik uste dut errendimendu hobea duenari gehiago saritu behar zaiola eta gu prest gaude %100 diruz laguntzeko. Hori proposatzen dugu eta ez da onartua izan. Kasu honetan abstenitu egingo gera.*"

**6.- Kreditu aldaketa eta egonkortasuna. Komunikazioa Udalbatzari.**

**6.-Modificación de créditos y estabilidad. Comunicación a la Corporación.**

Kontuhartzaileak txosten honen berri eman du:

**"1/2015 Kreditu aldaketa:**

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 2014ko kreditu gerakinak 2015era txertatu ondoren (1/2015 kreditu aldaketa), betetzen du 2015erako ezarritako zor publikoaren helburua eta gastuaren araua, baina ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua.

# OHIZKO OSOKO BILKURA

## 2015.04.28

Aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzen ez duten entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan helburu horiek bete ahal izateko.

Hala ere, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 3. Erregelan ezarritakoari jarraituz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordez komunikazio bat aurkeztu daiteke Udalbatzan, zirkunstantzia hori adierazita, kontuhartzaileak finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Hau dela eta, kontuhartzaile honek ondorengo txostena egin du, Udalbatzari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzen duena.

**TXOSTENA**

**Aurrekontuen egonkortasuna**

Tolosako Udalaren 1/2015 Kreditu aldaketarako espedientearen ondoren administrazio izaera duten entitateen 2015eko behin-betiko aurrekontuak 1.279.438,72 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetako sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetako gastuen arteko diferentziarekin parekatu da.

Hasierako aurrekontuak 344.537,00 euroko superabita zuen. Beraz, 1/2015 kreditu aldaketarako espedienteak 1.623.975,72 euroko defizita sortu du.

Ondorengo taulan azaltzen dira datuak:

| Egonkortasuna | Hasierako Aurrekontua (SEC) 2015 | Aldaketa 1/2015 (SEC) 2015 |
|---|---|---|
| Sarrerak Kap.1 - 7 | 28.020.850,00 | 28.244.036,72 |
| Gastuak Kap. 1 - 7 | 27.676.313,00 | 29.523.475,44 |
| Superabita / Defizita | **344.537,00** | **-1.279.438,72** |

## OHIZKO OSOKO BILKURA

## 2015.04.28

| | | |
|---|---|---|
| Diruzaintza Gerakinaren erabilera | | 1.628.170,72 |
| Finantzaketa ahalmena | **344.537,00** | **348.732,00** |

**Plana ordezkatzeko baldintzak betetzeari buruzko egiaztapena**

Defizit horren arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da. 1/2015 kreditu aldaketaren espedientea finantzatzeko diruzaintzako gerakinetatik 1.628.170,72 euro erabili dira guztira.

Honen eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak 348.732,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

**Finantza iraunkortasunari buruzko egiaztapena**

Tolosako Udalaren 1/2015 kreditu aldaketa, guztira, 1.851.357,44 eurokoa izan da. Batez ere, seigarren kapituluko kredituak txertatu dira kredituak (1.505.440,04 euro).

Hau da inbertsioen zerrenda:

| | **ZENBATEKOA** |
|---|---|
| Plan orokorraren berrikuspen partziala | 41.999,84 |
| Larramendiko biribilgunea | 221.525,27 |
| Emeterio Arrese kaleko irisgarritasun obrak | 25.739,20 |
| M.J.Iraola kaleko zorua berritzeko obrak | 66.791,26 |
| Iurre auzoko parkea | 96.632,83 |

| | |
|---|---|
| Amarotzeko urbanizazioa | 449.901,67 |
| Bedaioko urbanizazio obrak | 70.542,18 |
| Hainbat erikinetako obrak | 287.366,06 |
| Makineria | 6.453,49 |
| Argi publikorako inbertsioak | 15.228,58 |
| Hondakinen kudeaketarako ekipamendua | 33.683,00 |
| Informatika ekipoak | 16.360,93 |
| Bizikletak gordetzeko obra Korreo kalean | 141.651,72 |
| Santa Luzia auzoko hazitegia | 31.564,01 |
| | |
| **GUZTIRA** | **1.505.440,04** |

Inbertsio hauek ez dira gastu errepikakorrak eta ez dute administrazio izaera duten finantza iraunkortasuna konprometitzen.

Bestalde, entitate baten finantza iraunkortasunaren adierazle bat aurrezki garbia da.

Administrazio izaera duten entitateen aurrezki garbia positiboa aurreikusten zen 2014ko aurrekontuaren likidazioaren aurreikuspenean, kontuak bateratu ondoren. Eta 2015eko aurrekontuan aurrezki garbia positiboa izaten jarraituko duela aurreikusten da.

2014ko likidazioaren datuak oraindik bateratu gabe daude.

Baina Udalaren kasuan, aurrezki garbia 3.886.429,74 eurokoa izan da 2014an, hau da, sarrera arrunten %16a. Gomendatzen da, gutxienez, ratio hau %2 eta %5 arteko tartean egotea.

**ONDORIOAK**

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko kontu bateratuen behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 2014ko kreditu gerakinak 2015era txertatu ondoren, aurrekontu egonkortasunaren helburua

betetzen ez badu ere, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra dela eta aipatutako urraketaren ondorioz ez dela konprometituta geratzen.

**2/2015 kreditu aldaketa:**

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 2/2015 kreditu aldaketaren ondoren, betetzen du 2015erako ezarritako zor publikoaren helburua eta gastuaren araua, baina ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua.

Aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzen ez duten entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan helburu horiek bete ahal izateko.

Hala ere, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 3. Erregelan ezarritakoari jarraituz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordez komunikazio bat aurkeztu daiteke Udalbatzan, zirkunstantzia hori adierazita, kontuhartzaileak finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.

Hau dela eta, kontuhartzaile honek ondorengo txostena egin du, Udalbatzari jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzen duena.

**TXOSTENA**

**Aurrekontuen egonkortasuna**

Tolosako Udalaren 2/2015 Kreditu aldaketarako espedientearen ondoren administrazio izaera duten entitateen 2015eko behin-betiko aurrekontuak 3.064.938,72 euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetako sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetako gastuen arteko diferentziarekin parekatu da.

2/2015 kreditu aldaketa egin aurretik behin betiko aurrekontuak 1.279.438,72 euroko defizita zuen. Beraz, 2/2015 kreditu aldaketak 1.785.500,00 euroko defizita sortu du.

Ondorengo taulan azaltzen dira datuak:

| Egonkortasuna | Hasierako Aurrekontua | Aldaketa 1/2015 | Aldaketa 2/2015 |
|---|---|---|---|

## OHIZKO OSOKO BILKURA

## 2015.04.28

| | (SEC) 2015 | (SEC) 2015 | (SEC) 2015 |
|---|---|---|---|
| Sarrerak Kap.1 - 7 | 28.020.850,00 | 28.244.036,72 | 28.717.036,72 |
| Gastuak Kap. 1 - 7 | 27.676.313,00 | 29.523.475,44 | 31.781.975,44 |
| Superabita / Defizita | **344.537,00** | **-1.279.438,72** | **-3.064.938,72** |
| Diruzaintza Gerakinaren erabilera | | 1.628.170,72 | 3.413.670,72 |
| Finantzaketa ahalmena | **344.537,00** | **348.732,00** | **348.732,00** |

**Plana ordezkatzeko baldintzak betetzeari buruzko egiaztapena**

Defizit horren arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da. 2/2015 kreditu aldaketaren espedientea finantzatzeko diruzaintzako gerakinetatik 1.785.500,00 euro erabili dira.

Honen eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak orain arteko 348.732,00 euroko superabita mantentzen du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.

**Finantza iraunkortasunari buruzko egiaztapena**

Tolosako Udalaren 2/2015 kreditu aldaketa, guztira, 2.258.500,00 eurokoa izan da. Horietatik, 1.978.000,00 euro inbertsioak egiteko edo kapital transferentziak emateko erabiliko dira, hau da kreditu aldaketaren %88a.

Hau da inbertsioen eta kapital transferentzien zerrenda:

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

| | ZENBATEKOA |
|---|---|
| Landa auzoetako plana | 60.000,00 |
| Elosegi parkearen 2. fasea | 164.000,00 |
| Alliriko parkea berritu | 21.000,00 |
| Hainbat eraikinetako obrak | 55.000,00 |
| Kondeaneko aldapako etxebizitzak | 1.165.000,00 |
| Makineria | 30.500,00 |
| Urkizuko ur depositoa | 103.000,00 |
| Ibilgailuak | 21.500,00 |
| Ekipamenduak | 7.000,00 |
| Bestelako inbertsioak | 10.000,00 |
| Kapital transferentziak Tolosa Lantzen-i | 141.000,00 |
| Kapital dirulaguntzak. Etxebizitza plana | 200.000,00 |
| **GUZTIRA** | **1.978.000,00** |

Inbertsio hauek ez dira gastu errepikakorrak eta ez dute administrazio izaera duten finantza iraunkortasuna konprometitzen.

Beste 100.000,00 euro 2012ko aparteko ordainsarien zati bati aurre egiteko dira. Hau ere ez da aurrerantzean errepikatuko den gastu bat.

Bestalde, entitate baten finantza iraunkortasunaren adierazle bat aurrezki garbia da.

Administrazio izaera duten entitateen aurrezki garbia positiboa aurreikusten zen 2014ko aurrekontuaren likidazioaren aurreikuspenean, kontuak bateratu ondoren. Eta 2015eko aurrekontuan aurrezki garbia positiboa izaten jarraituko duela aurreikusten da.

2014ko likidazioaren datuak oraindik bateratu gabe daude.

Baina Udalaren kasuan, aurrezki garbia 3.886.429,74 eurokoa izan da 2014an, hau da, sarrera arrunten %16a. Gomendatzen da, gutxienez, ratio hau %2 eta %5 arteko tartean egotea.

**ONDORIOAK**

Administrazio izaera duten entitateen 2015eko kontu bateratuen behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 2/2015 kreditu aldaketaren ondoren, aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzen ez badu ere, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra dela eta aipatutako urraketaren ondorioz ez dela konprometituta geratzen."

Ondorioz, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**7.- <u>Berankortasunaren gaineko arautegia betetzeari buruzko txostena, 2014ko ekitaldiari dagokiona.</u>**

**7.-<u>Informe sobre el cumplimiento de la normativa de morosidad en el ejercicio de 2014.</u>**

"25/2013 Legeak, abenduaren 27koa, faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza- erregistroa sortzeko legeak, berankortasuna erauzteko xedez, hainbat neurri erregulatzen ditu.

Aipatutako legearen 12.2 artikuluak, hain zuzen ere, ondorengoa dio:

" *Urtean behin, barne-kontroleko organoak txosten bat egingo du, berankortasunaren arloan araudia zenbateraino betetzen den ebaluatuko duena. Toki Erakundeen kasuan, txosten hori Udalaren osoko bilkurara aurkeztuko da".*

Uztailaren 5eko 15/2010 Legean azaltzen dira udal entitaeek ordainketa egiteko dituzten epeak. Horretan oinarrituz, 2014 urteko hiruhilabeteetako txostenak atxiki dira, epeen betetze maila aztertzeko. Bertan, epea betetzen ez diren obligazioen kopurua eta kantitatea azaltzen dira.

2014. ekitaldiko datuak soilik 2014ko gastuei dagokie, datuak lortu diren lehendabiziko urtea izan delako. Hauek aktari lotuta doaz."

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

**8.-Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Diagnostikoa onartzea.**

**8.-Aprobación del diagnóstico para la igualdad de mujeres y hombres.**

Tolosako Udalak, bere udalerrian emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ibilbide luzean, bere Berdintasunerako III. Plana prestatzeko premia du gaur egun, Berdintasunerako II. Planaren indarraldia amaitu egin baita. Populazioaren benetako premietara egokitutako plan bat prestatzeko, udalerriko berdintasunaren egoera orokorraren diagnostiko bat garatu behar da aurrez. Beraz, dokumentu honen azken helburua da Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana diseinatzeko eta prestatzeko oinarri izatea, eta arlo horretan 2001eko berdintasun diagnostiko globalarekiko eta 2006ko kultura- esparruko espezifikoarekiko egindako aurrerapenak eguneratzea eta agerian jartzea.

Emakume eta gizonen Berdintasunerako Diagnostikoak, populazioari, lan produktiboari eta erreproduktiboari, hezkuntza eta euskarari, kultura eta festei, kirolari, osasunari, emakumeen aurkako indarkeriari, hirigintzari, prekarietate eta krisi ekonomikoaren inpaktuari, emakumeak jabetzeko politikari eta genero zeharkakotasunari buruzko datuak jasotzen ditu.

Diagnostiko honen ondorioz sortutako lehentasun guztiak jasoko dira plan berrian, eta 2012an egindako ebaluazioan dokumentatutako guztiak ere bai, bai Berdintasunerako II. Planaren ezarpen- eta inpaktu-mailan, bai tolosako udalak 2008tik duen berdintasunerako udal ordenantzan.

Txosten Diagnoskikoak, halaber, balorazio bikoitza egin nahi izan du, batetik, Tolosako emakume eta gizonen eguneroko errealitatearen esparruetako berdintasun- egoerari buruz eta, bestetik, genero-zeharkakotasunaren ezarpen- mailari buruz udal- politiketan eta Udalaren barne- antolakuntzan bertan. Adierazi behar da lanaren nondik norakoa ez dela izan esparru bakoitzari buruzko azterketa monografiko bat egitea, baizik horietako bakoitzaren gakoak nabarmentzea genero- ikuspegitik, eta horien guztien analisi bat egitea.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Diagnostikoa Berdintasun Sailak eta Parekidetasun Batzordeak burutu dute, Betean Auditoria eta Oreka Sarea enpresekin laguntzarekin, eta Emakunderen babesarekin.

Hau guztia aztertuta, Parekidetasun Batzordeak diktaminatutakoarekin bat etorriz, Udalbatzak, ahobatez,

**ERABAKI DU:**

**Lehena.-** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Diagnostikoa, Betean auditoria eta Oreka sarea empresak emandako laguntza teknikoaren arabera egindakoa, behin betiko onartzea.

**Bigarrena.-** Erabaki honen berri ematea Berdintasun Zerbitzuari.

# OHIZKO OSOKO BILKURA

## 2015.04.28

**9.-Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2015-2020) onartzea.**

**9.-Aprobación del III Plan para la Igualdad de mujeres y hombres (2015-2020).**

Hamarkada batetik gorako ibilbidearen ondoren, Tolosako Udalaren berdintasun- politikak finkatzeko eta sakontzeko fase oso garrantzitsu batean daude. Horrela, emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana balorazio bikoitz batetik abiatzen da:

- Batetik, Tolosako emakume eta gizonen eguneroko errealitateko esparru guztietan oraindik dauden desberdintasunen analisia.

- Bestetik, genero- zeharkakotasunak udal- politiketan eta Udalaren brne- antolakuntzan bertan duen ezarpen- mailaren analisia.

III. Berdintasun Plan honek, beraz, dokumentu edo partaidetzazko espazio hauetan jasotako informazioaren ondorioz sortutako lan- lehenespenak jasotzen ditu:

- Tolosako Udalaren emakume eta gizonen berdintasunerako udal- ordenantza, 2008tik indarrean dena.
- Emakume eta gizonen berdintasunerako II. Udal- planaren ebaluazioa, 2012an egina, II. Berdintasun Planaren zein berdintasunerako udal- ordenantzaren ezarpen- maila eta eragina dokumentatzen dituena.
- Emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostikoa, 2014ko urrian amaitua.
- Elkarrizketak, bilerak eta eztabaita- taldeak, 2014an zhear dokumentu hau prestattzeko prozesuaren barruan egindakoak, bai hiritarren ordezkariekin, bai Udaleko eta eskualdeko ordezkari politiko eta teknikoekin.

III. Plana 6 urteko esparrua duen plan bat da, 2015 urtetik 2020 urtera bitartekoa. Horrela, 2 urteko hiru fasetan banatzen da plana eta fase bakoitzerako bi urteko programa eragile bat prestatuko da, izan ere, horrek zehatzago definitzeko aukera emango du Plangintza orokorraren xedapenak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III Plana Berdintasun Sailak eta Parekidetasun Batzordeak burutu dute, Betean Auditoria eta Oreka Sarea enpresen laguntzarekin eta Emakunderen babesarekin.

Hau guztia aztertuta, Parekidetasun Batzordeak diktaminatuta, Udalbatzak, ahobatez,

**ERABAKI DU:**

**Lehena.-** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III.Planari behin behineko onarpena ematea.

**Bigarrena.-** Plana informazio publikoan jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, web- orrian eta ediktu atalean iragarkia argitaratuz, interesatuek gutxieneko 30 eguneko epean erreklamazio zein iradokizunak aurkeztu ditzaten.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

## 2015.04.28

**Hirugarrena.-** Inongo erreklamazio zein iradokizunik aurkeztu ez bada, akordioa behin betiko onartu dela ulertzea. Bestela, aurkezturiko erreklamazio eta iradokizunen erresoluzioa burutzea eta akordioa behin betiko onartzea.

**Laugarrena.-** Honen berri ematea bertintsasun Zerbitzuari eta Kontuhartzailetza Sailari.

**10.-Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Eraginkorra (2015-2016) onartzea.**

**10.-Aprobación del Plan Operativo para la Igualdad de mujeres y hombres (2015-2016).**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Eraginkorrak ( 2015- 2016), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana ( 2015-2016) gauzatzen du, III. Plana bi urteko hiru programen bitartez burutuko baita. Horrela, Plan eraginkorrak 2015 eta 2016 urteetako bidea zein kudeaketa zehazten ditu, eta III. Plangintzaren xedapen orokorrak finkatu.

Horrela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Eraginkorrak 2015 eta 2016 urteetan jarraitu beharreko ardatz nagusiak azaltzen ditu. Ondorengoak dira ardatzak:

1. Genero- zeharkakotasuna kulturan eta udal- gobernuan.
2. Emakumeen partaidetza eta jabetza.
3. Zainketen ekonomia eta bizitzaren iraunkortasuna.
4. Indarkeria matxistarik gabeko ingurunea.

Era berean, Plan Eraginkorraren kudeaketa eta jarraipena nola burutuko diren adierazten da.

Azken zatian, Plan Eraginkorraren lau ardatz nagusiak aurrera eramateko aurreikusten diren aurrekontuak barneratzen ditu Planak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Eraginkorra Berdintasun Sailak eta Parekidetasun Batzordeak burutu dute, Betean Auditoria eta Oreka Sarea enpresen laguntzarekin eta Emakunderen babesarekin.

Hau guztia aztertuta, Parekidetasun Batzordeak diktaminatuta, Udalbatzak, ahobatez,

**ERABAKI DU:**

**Lehena.-** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2015 eta 2016 urteetako Plan Eraginkorrari behin behineko onarpena ematea.

**Bigarrena.-** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2015 eta 2016 urteetako Plan Eraginkorrak aurreikusten duen 319.415,76 euroko aurrekontua onartzea.

**Hirugarrena.-** Plana informazio publikoan jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, web- orrian eta ediktu atalean iragarkia argitaratuz, interesatuek gutxieneko 30 eguneko epean erreklamazio zein iradokizunak aurkeztu ditzaten.

**Laugarrena.-** Inongo erreklamazio zein iradokizunik aurkeztu ez bada, akordioa behin betiko onartu dela ulertzea. Bestela, aurkezturiko erreklamazio eta iradokizunen erresoluzioa burutzea eta akordioa behin betiko onartzea.

**Bostgarrena.-** Honen berri ematea Berdintasun Zerbitzuari eta Kontuhartzailetza Sailari.

Parte hartzeak (Berdintasun arloko aurreko hiru erabakiei dagozkienak):

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ/PNV: "*2008 garren urtean martxan jarri zen lehenengo udal ordenantza eta Tolosa izan zen onartu zuen lehen Udala. Lan haundia egin da eta legealdi amaieran bukatzea plan berriarekin mahai gainean eta bi urteko plangintza horrekin, non zehazten diren zeintzuk izango diren aurrera eramango diren ekintzak, azken generoaren inguruko zeharkakotasuna lortzeko, oso lan borobila da eta zoriondu nahi nituzke lan hori egin duzuen guztioi.*"

... Silvana Ostiza Goikoetxea, Bildu: "*Bilakaera historikoan, emakumeok beranduago lortu ditugu herritar eskubideak, eta horrek defizit demokratiko bat sortu du mundu osoan, eta Euskal Herria ez da salbuespen. Tradizionalki, gizonak egon dira arlo publikoan: politikan, ekonomian, zientzian, kulturan..., ospea duten eremuetan. Eta emakumeok, aldiz, arlo pribatuan, osperik gabeko eta sari eskaseko lanetan, bizitza irauteko besteak bezain edo garrantzitsuagoak direnak; eta publikoan aritu direnak ere inbisibilizatuak izan dira.*

*Hori dela eta, legeak, erakundeak, prozedurak... gizonezkoek asmatutakoak dira, beraien neurrira egindako mundu batean. Mundua, zorionez, aldatzen ari da. Esfortzu handiarekin, emakumeok arlo publikora salto egin dugu, eta arlo pribatua gizonekin konpartitzea behar dugu.*

*Eta bide horretan erakundeok lagundu egin behar dugu. Ez badugu laguntzen, gauzak ez dira berdin geratuko; defizit demokratiko hori indartuko dugu, ordea. Eta emakumerik gabez ez da demokraziarik. Emakumeen beharrak, egoerak eta posizioak kontutan hartzen ez dituen politika ez da politika demokratikoa.*

*Legebiltzarreko 4/2005 Berdintasun Legeak dio Udalok zerbait egin behar dugula, alegia, berdintasun planak onartu behar ditugula. Baina legerik ez balego ere, berdin-berdin egin beharko genuke.*

*Berdintasun Plan hau, Emakundek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako ardatzak eta planak kontutan hartuta egin da.*

*Realista da, krisi sistemikoa sugeritzen ari garen egoerara egokituta, bizitzen ari garen egoerari erantzuna ematen saituko dena.*

*Lau ardatz ditu kontuan:*

1. *Genero zehakakotasuna kulturan eta udal gobernuan*
2. *Emakumeen partaidetza eta jabetza*
3. *Zainketen ekonomia eta bizitzaren iraunkortasuna*
4. *Indarkeria matxistarik gabeko ingurunea*

*Plan hau anbiziosoa da, eta konpromiso handia suposatuko dio Udalari, bai arlo politikoari, bai arlo teknikoari.*

*Udalean lan egiteko modua eta filosofia egokitu beharko da, eta genero ikuspegia kontuan hartu beharko da arlo guztietan, modu inklusiboan, elkarlanean, modu komunikatibo eta demokratikoan. Barruan lan egiteko modu berri honek islada izango du kanpoan, eta eragina.*

*Berdintasun III. Planak dio Udal honek, datozen urteetan, zer egin behar duen, bai gizonei, bai emakumeei zerbitzu publiko on bat emateko, bidezkoak ez diren desberdintasunak ezabatzeko, democrazian eta gobernu onean sakontzeko. Horregatik da hain garrantzitsua, ez bakarrik plana onartzea, baizik eta ahal diren bitarteko guztiak jartzea plan horrek dioena betetzeko.*

*Aurrekontua ajustatuta dago, 2015eko aurrekontuaren arabera. Hor sartuta daude proiektu estrategiko guztiak: Hezkidetza, Jabetze Eskola, Beldur Barik, Udal Protokoloa...*

*Lau urte hauetan, E.H. Bildurentzat Berdintasun arloa estrategikoa izan da. Legealdiaren amaiera da, eta III. Berdintasun Plana martxan jarriko dugu hurrengo urteetarako.*

*Denbora laburrerako, zinegotzi lanak aurrera eramatea egokitu zait. Tarte honetan, III. Plan Udal Batzar honetara ekartzea kointziditu du, eta aitortuko dizuet hau niretzat ohore bat dela.*

*Nola ez, ezin utzi aipatu gabe, nire aurretik Miren Urkola zinegotziak egindako lan gutztia hona iritsi arte, bera eta beste batzordekide guztiak, batzuk hor ikusten ditut Pleno Aretoan. Horiek guztiek egindako tartari, niri ginda gorria jartzea tokatu zait suertean.*

*E.H. Bilduk baiezkoa emango diogu, nola ez, guretzat horren baliogarria izango den III. Berdintasun Planari."*

**11.-Kultur Tailerrak kontratatzeko espedientea onartzea.**

**11.-Aprobación del espediente para la contratación de los talleres culturales.**

Kultur Teknikariak 2015eko martxoaren hiruan txostena egin zuen. Bertan azaltzen du 2014-2015 ikasturtean Tellazpi enpresak Tolosako udalarekin kultur taillerrak eskaintzeko zerbitzuari dagokion kontratua bukatu egiten dela. Beraz, kultur tailerrak eskaintzen jarraitzeko beharra azaldu du teknikariak.

Egoeraz jabetuz, lan hauetaz arduratuko den enpresa kontratatu ahal izateko prestatu den baldintza plegua eta espedientea onartzea proposatu da.

Administrazio Orokorreko Teknikariak txosten juridikoa egin du 2015eko apirilaren 20an.

Hau dena kontutan izanik, Udalbatzak, aho batez,

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

**ERABAKI DU:**

**Lehena**.- Ondorengo espediente kontratazioa onartzea: kultur departamentuak antolatutako ikastaroak ematekoa.

**Bigarrena**.-Zerbitzua esleitzeko, prozedura irekiaz, deialdia egitea, baldintza pleguak onartuz.

**Hirugarrena**.-Dagokion gastua onartzea.

**Laugarrena**.-Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratista profilean argitaratzea dagokion iragarkia, interesatuek proposamenak aurkez ditzaten hamabost eguneko epean.

**13.- EH Bilduk aurkeztutako mozioa: Armeniar genozidioaren 100. urteurrena.**

Idazkariak mozioa irakurri du:

“2015eko apirilaren 24an gizateriaren historian zientifikoki planifikatu, antolatu eta gauzatu zen aurren genozidioa hasi zela ehun urte bete dira. Inperio otomandarrak antolatu zuen eta 1.700.000 lagun hil ziren horietatik 1.500.000 armeniar jatorrikoak izan zirelarik. Horrexegatik hain zuzen armeniar genozidio deritzo.

Nazio Batuen Erakundeak 1984an errekonozitu zuen armeniar genozidioa, Europako Parlamentuak 1987an eta Eusko Legebiltzarrak 2007an.

Turkiak ordea ez du oraindik armeniar genozidioa errekonozitzen.

Adierazpen honen bidez, udal honek bat egiten du beste zenbait erakunderekin hala nola, Europako Parlamentuarekin, Europako Kontseiluarekin, Europako hainbat estatu- eta eskualde-parlamenturekin eta estatuko hamaika udalek eta parlamentu autonomikorekin

**13.-Moción presentada por EH Bildu: centenario del genocidio armenio.**

“El pasado 24 de abril del 2015 se han cumplido cien años del inicio del primer genocidio planificado científicamente, organizado y ejecutado en la historia de la humanidad. Lo organizó y consumó el Imperio otomano, que acabó con la vida de 1.700.000 personas, 1.500.000 de ellas de origen armenio. De ahí que se denomine el genocidio armenio.

En el año 1984 la Organización de Naciones Unidas reconoció el genocidio armenio; el Parlamento Europeo hizo lo propio en 1987 y el Parlamento Vasco en el 2007.

Sin embargo, Turquía sigue sin reconocer el genocidio armenio.

Mediante esta declaración el Ayuntamiento de Tolosa se adhiere a las declaraciones que en este sentido han expresado diferentes instituciones como el Parlamento Europeo, el Consejo de Europa, parlamentos estatales y regionales de Europa y municipios del estado y diversos parlamentos

Horiek horrela, Tolosako udalak:

1. Omen egiten die Inperio otomandarrak eragindako 1.500.000 biktima armeniarrei eta elkartasun eta justizia izpirituan oinarrituta bat egiten du genozidio armeniarra oroit ospakizunekin.

2. Omen egiten die genozidio guztien biktimei eta Genozidioak Gogoratzeko Nazioarteko Eguna ezardadin proposatzen du, Europako Parlamentuak hilaren 15ean eginiko proposamenarekin bat eginez

3. Armeniar genozidioaz Turkiak duen jarrera ukatzailea salatzen du eta gonbit egiten die Turkiako agintariei beren historia errekonozitzera eta armeniar genozidioa onartzera, hori baita turkiareta armeniar herrien arteko adiskidetasunari oinarri sendoak emateko modu bakarra.

4. Turkiari eskatzen dio armeniar kultur ondare hondatua, hala ñola elizak eta gainerako monumentuak, berreskuratzeko ekimenak abia ditzala eta ondarehorren inbentarioa egin dezala.

5. Akordio honen berri ematea Armeniako eta Turkiako gobernuei eta Europako Parlamentuari.”

autonómicos.

Por todo lo anterior, el Ayuntamiento de Tolosa:

1. Rinde homenaje a las 1.500.000 victimas armenias causadas por el Imperio otomano y, en virtud de los principios de solidaridad y justicia, se adhiere a los actos conmemorativos del genocidio armenio.

2. Rinde homenaje a las victimas de todos los genocidios y propone instaurar el Día Internacional Conmemorativo de los Genocidios, uniéndose a la propuesta realizada por el Parlamento Europeo, el 15 de abril.

3. Denuncia la actitud de Turquía, que hoy día continua negando y sin reconocer el genocidio armenio, e invita a los gobernantes de aquel país a no renegar de su propia historia y reconocer el genocidio causado, ya que es el único modo de sentar bases sólidas para la reconciliación de los pueblos turco y armenio.

4. Solicita al gobierno turco que inicie las labores de recuperación y reparación del patrimonio armenio destruido (iglesias y resto de monumentos) y realice el inventario de dicho patrimonio.

5.Comunica este acuerdo tanto a los gobiernos armenio y turco como al Parlamento Europeo.”

Jarraian, eztabaida amaituta, mozioa bozketara jarri da eta onartu ere egin da denen adostasunarekin.

Parte hartzea:

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar: “*Gure artean Armenia eta Armeniarrak ez dira oso ezagunak izan. Udal honek eta Euskal Herriko hainbat udalek beren elkartasuna palestinarrekin, sahararrekin eta kurdoekin adierazi dute behin eta berriro. Aurten ibili da gai honi buruz informazioa, genozidioaren 100 urte bete direlako. Ondorio latzak izan zituen genozidioak, ez hildakoek bakarrik, baizik millaka lagun bidali zirelako kanpora. Mozio honekin nahi dena da oroitzea eta bat egitea ospakizunekin. Europar parlamentuak esan zuen bezala, komenigarria izango liteke nazioarteko egun bat jartzea honen inguruan astakeri eta barrabaskeri horiek gogoratzeko eta memorian izateko, gerra eta jenozidioaren bidez konfliktoak ez direla konpontzen. Eskatu Turkiar gobernuari bere jarrera aldatzea. Ez du onartzen jenozidioa! Kurdoek barkamena eskatu dio Armeniar herriari. Seguru nago Armeniarrek, nahiz eta gu hurruti egon, estimatuko dutela Tolosako Udalak hartzen duen akordioa.*”

**14.- Anmistia Internazionalak aurkeztutako mozioa: Adierazpen instituzionala; maiatzaren 17a, Homofobia eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna.**

Mozioak honela dio:

“Kontuan izanik gizon-emakume guztiak aske eta duintasun eta eskubide berberak dituztela jaiotzen direla, eta estatuek saihestu egin behar dituztela sexu-orientazioagatiko, genero-¡dentitateagatiko eta genero-adierazpenagatiko ¡ndarkeria nahiz gorrotoa eta errespetatu egin behar dituztela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioak;

Aintzat hartuta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (EZPNI) eta giza eskubideen nazioarteko legeria sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko gaietan aplikatzeko Yogyakartako Printzipioak (2007);

**14.-Moción presentada por Amnistia internacional: Declaración Institucional en el Día Internacional contra la Homofobia y la Transfobia, 17 de mayo.**

“Considerando que todos los seres humanos nacen libres e ¡guales en dignidad y derechos, y que los Estados tienen la obligación de evitar la violencia y la incitación al odio por motivos de orientación sexual, identidad de género y expresión de género, así como de respetar los principios de igualdad entre mujeres y hombres;

Vistos la Declaración Universal de Derechos Humanos, el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos (PIDCP) y los Principios de Yogyakarta de 2007 sobre la aplicación de la legislación internacional de Derechos Humanos en relación con la orientación sexual y la identidad de género;

Aintzat hartuta, halaber, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren 17/19 Ebazpena, 2011ko ekainaren 17koa, giza eskubideei, sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzkoa, eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren 2011ko azaroaren 17ko b<ostena *(Leyes y prácticas discriminatorias y actos de violencia cometidos contra personas por su orientación sexual e identidad de género);*

Kontuan hartuta Amnesty Internationalen txosten hauek: *Amor, Odio y Ley. Despenalizar la homosexualidad* (2008), *Cuando el amor es delito. Penalización de las relaciones sexuales entre personas del mismo sexo en el África Subsahariana* (2013) eta *Por ser quien soy. Homofobia, transfobia y crímenes de odio en Europa* (2013);

Nahigabea adieraziz homosexualitatea oraindik legez kanpokoa delako 80 herrialdetan (horietako 36 afrikarrak) eta heriotza-zigorraz zigortzen dutelako Afganistanen, Brunein, Iranen, Mauritanian, Pakistanen, Saudi Arabian, Sudanen, Yemenen eta Nigeriako eta Somaliako estatu batzuetan;

Tolosako Udalak:

1. Kezka sakona adierazi nahi du Amnesty Internationalek dokumentatu dituen kasu batzuengatik. Kasu horiek argi erakusten dute homosexualitatea kriminalizatu egiten déla, homofobiagatik edo transfobiagatik egindako krimenak zigorrik gabe geratzen direla eta gayek, lesbianek, bisexualek, transexualek, transgeneroek eta intersexualek tratu txarrak jasotzen dituztela. Honako hauek dira:

Considerando la Resolución 17/19 del Consejo de Derechos Humanos de las Naciones Unidas, de 17 de junio de 2011, sobre derechos humanos, orientación sexual e identidad de género, así como el Informe de la Alta Comisionada de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos de 17 de noviembre de 2011 sobre *"Leyes y prácticas discriminatorias y actos de violencia cometidos contra personas por su orientación sexual e identidad de género";*

Teniendo en cuenta los informes de Amnistía Internacional *"Amor, Odio y Ley. Despenalizar la homosexualidad"* (2008), *"Cuando el amor es delito. Penalización de las relaciones sexuales entre personas del mismo sexo en el África Subsaharíana"* (2013) y *"Por ser quien soy. Homofobia, transfobia y crímenes de odio en Europa"* (2013);

Mostrando consternación por el hecho de que la homosexualidad sea todavía hoy ilegal en cerca de 80 países, 36 de ellos en África, y que sea castigada con la pena capital en Afganistán, Brunei, Irán, Mauritania, Pakistán, Arabia Saudí, Sudán, Yemen, y algunos estados de Nigeria y Somalia;

El Ayuntamiento de Tolosa:

1. Manifiesta su especial preocupación por una serie de casos documentados por Amnistía Internacional que ponen de manifiesto la criminalización de la homosexualidad, la impunidad por crímenes cometidos por motivos homofóbicos o transfóbicos y los malos tratos contra personas gays, lesbianas, bisexuales, transexuales, transgénero e intersexuales:

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

- **KAMERUNEN, JEAN-CLAUDE ROGER MBEDE** kontzientzia-presoari "homosexualitatea eta homosexualitate-saioa" leporatuta ezarritako hiru urteko espetxe-zigorra. 2011 ko martxoaren 2an atxilotu zuten, eta 2012ko uztailean eman zioten baldintzapeko askatasuna, baina Yaundeko Apelazio Gorteak berriz espetxeratzeko agindu zuen 2013ko abenduan. Tragikoki hil zen, 2014ko urtarrilean.
- **HEGOAFRIKAN, NOXOLO NOGWAZA** aktibista lesbianaren hilketa. 2011 ko apirilaren 24an, bortxatu, eta hil arte kolpatu zuten, Kwa Theman (Gauteng) (poliziaren 635/04/2011 zenbakidun kasua).
- **TURKIAN, AHMET YILDIZen** hilketa. Gay aitortua, tiroz hil zuten Üsküdarren (Istanbul), 2008ko uztailaren 15ean. Iritzi orokorraren arabera, "ohorearen" izenean egindako hilketa izan zen.
- **BULGARIAN, MIHAIL STOYANOVen** hilketa. 2008ko irailaren 30ean, basatiki kolpatu zuten, hil arte, Sofiako Borisova Garden parkean. Hilketaren arrazoia: harén sexu-orientazioa (erasotzaileek usté zutena).
- **BIELORRUSIAN, IHAR TSIKHANYUKUN** homosexualaren kasua. Poliziak galdeketa egin zion 2013ko urtarrilean, Lambdako Giza Eskubideen Zentroa erregistratzen saiatu zirenean. Kolpatu egin zuten, eta mehatxuak eta abusuak pairatu zituen gay izateagatik. Harén zauriak ez zituzten dokumentatu, eta tratu txarrengatik jarri zuen salaketa ez dute ikertu.

- En **CAMERÚN,** la condena a tres años de cárcel por "homosexualidad y tentativa de homosexualidad" del preso de conciencia **JEAN-CLAUDE ROGER MBEDE.** Arrestado el 2 de marzo de 2011, puesto en libertad condicional en julio de 2012 y para el cual la Corte de apelaciones de Yaunde dictó nuevamente el reingreso en prisión en diciembre de 2013. Trágicamente fallecido el 10 de enero de 2014.
- En **SUDÁFRICA,** el asesinato de **NOXOLO NOGWAZA,** activista lesbiana, violada y golpeada hasta la muerte el 24 de abril de 2011 en Kwa Thema (Gauteng) (caso policial número 635/04/2011).
- En **TURQUÍA,** el asesinato de **AHMET YILDIZ,** hombre de condición gay **reconocida, muerto de un disparo el 15 de** julio **de 2008 en Üsküdar (Estambul) en** lo que, según opinión general, fue un homicidio en nombre del "honor".
- **En BULGARIA, el** asesinato de **MIHAIL STOYANOV,** agredido brutalmente hasta su muerte el 30 de septiembre de 2008 en el Borisova Garden de Sofía. El hecho se produjo por (la que los agresores consideraban que era) su orientación sexual,
- En **BIELORRUSIA,** el caso de **IHAR TSIKHANYUKUN,** persona homosexual, interrogada por la policía tras el intento de registro del Centro de Derechos Humanos Lambda en enero de 2013. Fue golpeado y sometido a amenazas y abusos por ser gay. Sus heridas no fueron documentadas y su denuncia de malos tratos no ha sido investigada.

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

1. Indarrez gaitzesten du lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen, transgeneroen edo intersexualen aurkako indarkeria eta diskriminazio oro.

2. Gizon-emakumeak beren sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik diskriminatzeko, auzipetzeko eta zigortzeko bidea ematen duten edo eman dezaketen lege guztiak indargabetzeko eskatu nahi du.

3. Sexu bereko pertsonekin sexu-harreman baimenduak (egiazkoak edo ustezkoak) izateagatik atxüotutako edo zigortutako pertsona oro berehala aske uzteko eskatu nahi du.

4. Justizia-administrazioko edozein mailatan sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako diskriminazio oro debekatzeko eta ezabatzeko beharrezko neurri guztiak har daitezela eskatzen du, izan legegintzakoak, administraziokoak eta beste edozein arlotakoak.

5. Sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako eskubide-urraketa guztien salaketak eta txostenak dagozkien agintariek bizkor eta inpartzialtasunez ikertuko dituztela bermatzeko eskatzen du, baita egileak kontuak ematera eta epaimahai baten aurrean agertzera behartzeko ere. Ildo horretan, adierazpen honetako 1. puntúan aipatuta ageri diren kasuak nabarmendu nahi ditu.

6. Sexu-orientazioa eta genero-identitatea (izan egiazkoak edo ustezkoak) estatu guztietan

1. Condena enérgicamente todas las formas de violencia y discriminación contra las personas lesbianas, gays, bisexuales, transexuales, transgénero e intersexuales.

2. Solicita la derogación de todas las leyes que den lugar a la discriminación, el procesamiento y la condena de personas exclusivamente por su orientación sexual o identidad de género.

3. Solicita la puesta inmediata en libertad de todas las personas detenidas o condenadas por mantener relaciones sexuales consentidas con personas del mismo sexo, reales o sospechadas.

4. Reclama que se adopten las medidas necesarias, tanto legislativas como administrativas y de otra índole, para prohibir y eliminar el trato discriminatorio basado en la orientación sexual o la Identidad de género en cualquier nivel de la administración de justicia.

5. Pide que se garantice que todas las denuncias y los informes de violaciones de derechos humanos basadas en la orientación sexual o identidad de género sean investigadas por las autoridades competentes con prontitud e imparcialidad y que se obligue a sus autores a rendir cuentas y a comparecer ante un tribunal. En este sentido, hace especial hincapié en los casos mencionados en el punto 1 de la presente Declaración.

6. Solicita que la orientación sexual y la identidad de género, reales o supuestas, sean incluidas en todos los Estados

"gorroto-krimenak" eragin ditzaketen ezaugarri babestutzat sar daitezela eskatu nahi du.

7. Eskatu nahi du, halaber, poliziako, komunikabideetako, osasun arloko eta irakaskuntzako profesionalei prestakuntza eskain diezaietela sexu-aniztasunari eta gizon-emakume oraren giza eskubideei buruz, LGBTI kolektiboko kideenak barne, eta prestakuntza hori ikasketen programa ofizialetan sardezatela.
8. Giza eskubideen defendatzaileak xaxatzeari uzteko eskatu nahi du, eta babes egokia bermatzeko sexu-orientazioari eta genero-identitatean lotutako giza eskubideak defendatzeagatik arriskuan daudenentzat.
9. Eskumena ematen dio Udalako Alkateari, hitzarmen hau bidaltzeko Kameruneko, Hegoafrikako, Turkiako, Bulgariako eta Bielorrusiako gobemuetara Espainian dituzten enbaxaden bitartez."

como características protegidas que pueden motivar un "crimen de odio".

7. Pide que se introduzca formación sobre diversidad sexual y derechos humanos de todas las personas, incluidos los miembros del colectivo LGBTI, dirigida a profesionales de la policía, de los medios de comunicación, de la salud y de la enseñanza, así como en los programas oficiales de estudios.
8. Pide que se ponga fin al hostigamiento de los defensores de los derechos humanos y que se garantice protección adecuada a los defensores que están en situación de riesgo debido a su trabajo sobre los derechos humanos en relación con la orientación sexual y la identidad de género.
9. Instruye a la Alcaldía de este Ayuntamiento para que remita este acuerdo a los gobiernos de Camerún, Sudáfrica, Turquía, Bulgaria y Bielorrusia a través de sus Embajadas en España."

Jarraian, mozioa bozketara jarri da eta onartu ere bai denen adostasunarekin.

Parte hartzea:

... Silvana Ostiza Goikoetxea, Bildu: "*Azken urteotan, LGTB kolektiboek eta Mugimendu Feministak egindako borrokari esker, sexualitateari eta generoari dagokionez, lege aldaketa inportanteak lortu dira, eta oinarrizko eskubide zibil batzuk parekatzea. Hala ere, eraso eta aurreiritzi homofobiko eta transfobikoak gertatzen dira gure inguruko kaleetan eta ikasgeletan. Ez da oso urrutira joan behar hori baieztatzeko, duela bi egun Madrilen gertatutako erasoak eta euskal ikastetxeetako homofobiari buruz Arartekoaren txostenek diotena ikusita.*

*Tolosako EH Bilduk bere jarrera irmoena erakusten jarraitzen du, genero eta sexu dibertsitatearen aurkako aurreiritzi eta erasoen kontra. Beraz, Amnistia Internazionalak aurkeztutako adierazpenaren alde bozkatzen du, eta bere gain hartzen ditu adierazpen horretan erakusten diren konpromisoak."*

## OHIZKO OSOKO BILKURA

**2015.04.28**

## *Gaiaren premiazkotasuna aztertu eta onartu ondoren, honako hau eztabaidatu da:

**Kale salmentako ordenantzaren inguruan jasotako alegazioak erantzutea eta behin betiko onarpena ematea.**

**Aprobación definitiva y contestación de alegaciones a la Ordenanza reguladora de la venta ambulante.**

2014ko abenduaren 30ean Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zitzaion Tolosako udalerrian kaleko salmenta arautzen duen ordenantzaren aldaketari. Espedientea jendaurrean ipini ondoren, bi erreklamazio jaso dira aldaketaren inguruan, bata Jose Angel Loidi jaunak egina eta, bestea Tolomendik, egina.

1.- Jose Angel Loidi jaunak egindako erreklamazioak ondorengoak izan dira eta ez dira onartu:

- **3. ARTIKULUA PRODUKTUAK:"** Zerkausi, Atadi eta Berdura plazako merkatuetan bertako produktuak baino ez dira salduko (7. artikuluaren arabera). Produktu horiek, gainera, erosi eta berriro saldu ahal izango dira. Alabaina, Udalak bere esku izango du, aparteko egoeretan, produktu jakin batzuk saldu edo ez.
  Erabakitzeko eskubidea, adibidez, perretxikoak, onddoak, senda-belarrak eta holakoak. Baina inolaz ere ezingo da saldu berez ezaugarriengatik herriko beste merkatu batzuetan saltzeko modukoak diren produktuak."
  **Erreklamazioa:** Mahaietan jartzen diren produktuen kopurutik, gehiengo-muga finkatzea (%20 adibidez) kanpokoak izateko aukera izatea, nolabait errentagarritasunik gabeko zenbait produktu marjinal ( baztertuak) aurkeztearen konpentsazio moduan.

  7. artikuluan zehazten dira produktu motak eta zenbatekoak.

- **7. ARTIKULUA: POSTUA ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEA, 2 PRODUKTUAK:** " a) Lehentasuna izango dute baserrian ekoiztutako produktuek. b) Eraldatutako produktuak, baldin eta lehengaia baserrian ekoiztua izan bada.c) Tolosaldean ekoiztutako edo eraldatutako produktuak. d) Nolanahi ere, produktuak izan behar du Euskal Herrian ekoiztu edo/eta eraldatua."
  **Erreklamazioa (Jose Angel Loidi):** Lehentasunaren zerrendan 4/ aukera: Euskal Herritik kanpo ekoiztu edo/ eta eraldatutako produktuak, beti mahaiaren aurkezpenaren %20aren azpitik izanaz.

  7. artikulua Tolomendiren erreklamazioaren ondorioz errebisatu da eta bere erredakzioa aldatu da.

- **14.5 ARTIKULUA:** " Eraldatutako edo/eta ontziratutako produktuei dagokienez, behar bezela identifikatu behar dira eta osasun-erregistroa edo baimena eduki behar dute."
  **Erreklamazioa:** Ontzien bererabilpena oinarritzat harturik ezinezkoa da erregistroan onartzea. Inguruarekiko hainbeste onura duen ekintza bat baztertua gelditzen da. Non da "Zero Zabor", jasangarritasuna eta iraunkortasuna?

  Eusko Legebiltzarraren 23ko 17/2008 Legea, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoaren 56.2 artikuluan oinarrituz:
  "Nolanahi ere, artisau-ekoizleak erregistrotik salbuetsita gera daitezke, ekoizpena osasun-araudiak ezartzen duen gehieneko erradioan merkaturatzen badute zuzeneko salmentaren edo bitartekarien bidez, eta, hala bada, baldintza tekniko-sanitario espezifikoen arabera merkaturatu ahal izango dituzte produktuak eremu geografiko

horretan. Betiere, osasun-baimena beharko dute, higiene-baldintza orokorrak betetzen dituztela bermatzeko, eta, hala badagokie, ekoizten dituzten produktuen irizpide mikrobiologikoak betetzen dituztela ziurtatzeko." Udalak ez du eskumenik osasun gaietan eta Osasun sailetik datozen arauak derrigorrez bete behar dira.

- **16.9 ARTIKULUA: "** Plastikozko poltsen erabilera ez da baimentzen. Konpostagarriak direnak erabili beharko dira."
  **Erreklamazioa:** Saltzaile askoren kasuan lehenagotik eginiko stoka ateratzearren moratoria moduko epe luzapena egokia izango litzateke, zeren goi mailako araudiak muga hori ez du gaur bertan derrigortzen, adibidez 2017rako .

  Europako legedia kontuan izanik aurrikusten da 2015eko maiatzean onartuko da murriztea plastikozko poltsen erabilera debekatzea.

  2.- Tolomendik egindako erreklamazioa, 7. artikuluaren errebisioa. Erreklamazio hau onartu egin da, ondorioz 7. artikuluaren erredakzioa honela izango da.

Diktamena ikusirik, Udalbatzak, aho batez,

**ERABAKI DU:**

**Lehen.-**Jose Angel Loidi jaunak aurkeztutako erreklamazioak ez onartzea.

**Bigarren.-**Tolomendik egindako erreklamazioa onartzea eta, ondorioz, 7.2 artikuluaren erredakzioa aldatzea.

**Hirugarren.-**Ordenantza behin betikoz onartzea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**15.- Galde-erreguak.**

**15.-Ruegos y preguntas.**

... Olatz Peon Ormazabal, EAJ/PNV: Hauteskundeak direla eta eskaera egiten du paneletan bakarrik jartzea kartelak, herria txukun mantentzeko: “*Herritarrek eskertuko dute.*”

Besterik gabe, gaueko bederatzietan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las nueve de la noche, se da por finalizada la Sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**